

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko uztaillak 17 - 1151. zenbakia

## EIBARKO MUSIKARIAK ERE KALERA BEGIRA



Etxeko aseguruak  
estimaten duguna  
babesten du.  
Altzariak,  
elektrodomestikoak,  
arropa, balio  
handiko gauzak...  
Sartu eta azalduko  
dizugu!

### ETXE ASEGURUA

### EUKI

ASEGURUAK

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

Euki-n zure etxearen  
neurriko babes onena  
eskaintzen dizugu



# + osasun gida

## Dentistak



**arar**  
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarar.com  
www.clinicadentalarar.com  
Toribio Etxebarria, 7. EIBAR

UniverSalud  
Mutua, kongainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnos. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Cudat

**MEDIKUNTZA  
ESTETIKOA**

**KIRURGIA  
ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - Ibañeta 943 906 044



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000€ gisa gutxienez prestatu.  
Ezartze eta egite ardurak berberak.

**bista eder**  
clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702886**

**Javier Martin dokorea**  
Aurpegi-masailetako Kirurgilaria

**AURPEGIA  
GAZTETZEKO  
KIRURGIA**

**AURPEGIKO  
KIRURGIA  
ESTETIKOA**

679 334 371  
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar  
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
79 kolapuz daia

- INDIATERAPIA
- KIBOT. LESIOAK
- DRINAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETA
- TRATAMENDUAK

**FISIOTERAPIA  
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20  
Tfn: 943 53 06 42  
www.aneclinetmail.com

**EIBAR** HORTZ KLINIKAK  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko etx. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitateak
- \* Inkontinentsia urinarioak
- \* Kiria medikuntza
- \* Arno izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnos. 943 20 34 46 Tfnos. 943 74 33 74

## Ginekologia

**Dra. Laura Martinez** **Dr. Alejandro Recas**

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com

**Pedro Etxebarria Gisasola  
DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Caibetan 19 - 3. esk. Tfnos: 943 20 72 17

**GASTESI  
Hortz-Klinika**

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser teknologia

Erebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

**hortz-klinika**

**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



## Okerrak zuzentzen

Aurreko astean kaleratu genuen aldizkarian (1150. zenbakian), 26-27 orrietan dagoen Eibartarren Ahotan atalean, argazkiak sartzerako orduan nahastu eta Julian Echeverria Orunari beste norbaiten argazkia ipini genion: bere orde irudian ikusten duzuen Jose Bergara Baskaran "Agarrazpi", Gorosta bailarako Agarre Azpikoa baserrian jaio eta bizi izandakoa da, eta ez Julian Echeverria Oruna, nahiz eta datu biografikoak eta pasarte berari dagozkion. Benetan sentitzen dugu nahasketa eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu hankasartzearekin konturatu eta horren berri eman diguzuen guztiei.

Erredakzioa



Jose Bergara Baskaran



Julian Echeverria Oruna

## Oharra

Datorren asteko barixakuan (uztailaren 24an) kaleratuko dugu ikasturteko azken alea. Hurrengokoa, udako oporretatik bueltan, irailaren 4an aterako dugu.

Erredakzioa

"Zergatik sortzen digute horrenbesteko lilura AEBetako gertakari politikoei mendebaldeko europarrei? Inperioa desegiten ikustearen zirrara baino, AEBekiko menpekotasuna eta gehiegizko espasioaren ondorioa izan daiteke. Geure gizartea gehiago asaldatu du bertako hilketa arrazista batek Txinako kontzentrazio-esparru arrazistek baino. Alde batetik, hango borrokek eta arrakastek inspiratu egiten gaituzte, eta geurean lozorroan zeuden gatazkak suspertu eta indartu ere bai. Beste aldetik, bertako sistemaren dekadentziak nagusitasun moralaz puze gaitu geure arazo sakonei ezikusiarrena egiten diegun bitartean. AEBek espektatibak sortzen dizkigute, baita gutxiespena ere, Mendebaldeko Europaren bertsio esajeratua balira bezala".

DIEGO PALLÉS, kazetaria

"Normaltasun berria hauxe izango da: indibidualizazio gehiago eta sumisio gehiago. Prest zaudete normaltasun berria onartzeko? Bizitza erdigunean jartzeaz asko hitz egiten da, baina bizitzen ari garen prozesua justu kontrakoa da. Botere ekonomiko eta politikoei erabakitzen dute nork duen eskubidea bizitzeko eta nork ez; hori nekropolitika da. Bizitza gozatzeko da, harremanez eta komunitateaz gozatzeko. Horretarako, denbora behar da, lan gutxiago eginda irabazi behar duguna. Nahi dugun horretan nahi dugun denboraz lan egitea, denbora izateko, da lanaren burujabetza izatea. Kontziliazioa ezin dugu onartu, bizitza eta lana bateraezinak direla onartzen dugulako horrela, eta tresnak behar ditugula bateraezina den hori bateratzeko".

BEÑAT IRASUEGI, Olatukoop

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NABAR.-** Kolore askotakoa. "Etxekoneko katu nabarra egunetan falta da". → Arrea, gaztaina-kolorekoa, marroia. Gaztelarazko 'pardo'. "Alpeetako hartz nabarra desagertzeko zorian dago".



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Debajo del Paraguas  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.780 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)







## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako udako azoka egin zuten T. Etxebarria kalean. Eduardo Zubiaurre Confedabeseko presidente izendatu zuten. Moto-hotsak hartu zituen herriko kaleak XVI. Lambretta kontzentrazioan. Mendaroko ospitalean mantenimendu lanak egiten zizutzen Tecman-eko beharginek greba mugagabea hasi zuten. Miren Urizar Europako txapelkun izan zen waterpoloan Espainiako selekzioarekin. Mikel Zabalak eskubaloiko junior mailako munduko txapelketan jokatu zuen. Amaiur Mayok Espainiako errugbi selekzioarekin jokatu zuen Errusian. UEUren 47. Udako ikastaroak amaitu ziren Markeskuan, sei jardunalditan 30 ikastaro eskainiz. "Azitaingo izkuek" gure astekaria Sanferminetara eraman zuten 22. aldiz jarraian. Vicky Rojas eta Dalila Cabrera "Voragine" websaila sortzeko zurrumbiloan zeuden sartuta. Arrateko bertso afarirako sarrerak salgai ipini ziren.

1- Mikel Zabala eskubaloiko junior mailako mundu txapelketan. 2- Udako azokan erosketak euskeraz egitea bultzatu zuten. 3- Eibarko Lambretta Klubak ehun motorzale elkartu zituen. 4- Miren Urizar Europako txapelkun waterpoloan selekzioarekin. 5- Jaz Zubiaurreko kudeatzaileak Roberto Larrañaga eibartarraren lekukoa jaso zuen. 6- Azitaingo Izkua astekaria eskuetan zutela Iruñean.





## Inoizko parte-hartzerik baxuena

Badago esaterik pandemiak azken hilabeteotako bere martxari jarraitu diola eta, ohikoa denez, oraingoan ere asteburuan jairik ez zuela hartu. Hauteskunde bereziak ziren oraingokoak -galdetu bestela Ordizian!-, eta jendeak ere horrela hartu izatea ez da harritzekoa. Parte-hartzean jaitziera nabarmena igarri zen, Euskal Autonomia Erkidego osoan; eta Eibarko kasua ez zen desberdina izan horretan. 21.000 lagun geunden deituta hauteskunde hauetara gurean eta 11.300 izan dira euren botoa eman duten eibartarrak, parte-hartzea %54an kokatuz. Gauzak horrela, abstentzioa izan zen hauteskunde domekako protagonista.

**O**rain dela lau urte, 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundetan, esaterako, %61ak eman zuen botoa; eta iazko Udalerako eta Batzar Nagusietarakoan (Europarako ere tartean) parte-hartze hori %68ra ailegatu zen. Jakina da, bizi dugun egoera berezia dela medio, orain dela lau urte baino gehiagok eman dutela botoa korreoz: azken datuen arabera, EAE-n 125.000 inguru izan dira, normalean baino %40 gehiago, eta zentsoaren %7; hala eta guztiz ere, ez da batzuk uste zutenaren kopurura iritsi, bost aldiz gehiago izango zirela ere esan baitzen kanpainaren hasieran.

EAJ-PNV nagusitu da oraingo hauteskunde hauetan Eibarren, 3.662 botorekin, eta 305eko alde kendu dio bigarren bozkatuena izan den EH Bilduri. Ezker abertzaleak 3.357 boto eskuratu ditu. PSE-EEk erakutsi du, beste behin, udaletarako ateratzen dituen

emaitzek eta Eusko Legebiltzarrerakoetan ateratzen dituenak ez dutela zerikusirik eta oraingoan 2.432 boto lortu ditu, EAJ-PNVrengatik 1.190 botora geratuz. Elkarrekin Podemos orain dela lau urte lortutako laugarren postuari eutsi dio, baina oraingoan askoz ere boto gutxiagorekin, 802rekin hain zuzen. PP eta Ciudadanos alderdien arteko koalizioa 479 bototan geratu da eta atzetik izan ditu EQUO-Berdeak, 169 botorekin, eta Vox, 100 justurekin.

Parte-hartzea txikiagoa izanda, logikoa da alderdi guztiek behera egin izana, eta horrela gertatu da guztiekin, EH Bilduren kasua kenduta. Oso nabarmentzekoa da ezker abertzaleak izandako emaitza: orduko 2.898tik oraingo honetan 3.357ra egin baitu jauzi. EAJ-PNV irabazleak, esaterako, orain dela lau urte baino 561 boto gutxiago atera ditu. Sozialistek 412 gutxiago izan dituzte

**Eibarko emaitzak, datuak auzorik auzo, grafikoak... ale berezian bildu ditugu. PDF-a etakitto.eus-en mediatekan dago**

oraingoan, Elkarrekin Podemos 884 galdu ditu (orain dela lau urte lortutakoaren erdian geratu dira), eta antzerakoa gertatu zaio PP-ri, Ciudadanosekin elkartuta ere orduan eskuraturako 940 botoak 479an geratu baitziren domekan.

Hainbat berezitasun izan dugu hauteskunde-egoitzetan baita ere, zortzi izatetik bederatziz izatera pasa den honetan. Horrela, hautesleketan normalean PSE-EEk batzuetan eta EAJ-PNVk beste batzuetan erakusten duten nagusitasuna oraingoan EH Bildurekin partekatu dute. PSE-EEk Amañan bakarrik irabazi du, eta EAJ-PNV eta EH Bildu nagusi izan dira, bakoitza lau hautesleketan: jeltzaleek erditik beherakoak hartu dituzte (Udaletxea, San Andres, Coliseoa eta Urkizu) eta ezker abertzalekoek Untzagako hirigunetik gorakoak bereganatu dituzte (Untzagako jubilatuen etxea, Torrekueta, Ipurua eta Urki). ■





## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Frankismoaren krimenen kontrako kereilan aurrera egitea erabaki dute Udalak eta euskal plataformak

>>> Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ikertzeko eskabideari uko egin eta gero, Udaleko alderdi guztiek, Frankismoaren Krimenen Aurkako Euskal Plataformarekin batera, aho batez adostu dute Espainiako eta nazioarteko erakundeetara jotzea, kereilarekin aurrera jarraitzeko. Udalak berak Eibarko Epaitegiaren autoaren kontra jarritako apelazio-errekurtsoa Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ezetsi duela jakin duenean hartu dute aurrera jarraitzeko erabakia. Auto horretan Francoren diktadurak udalerrian gizateriaren aurkako krimenengatik egindako erantzukizun penalak argitzeko ikerketa-eskaera ezetsi zen.

Aurrekarietara jo ezker, 2016ko urrian erabaki zuen Udalak akusazio gisa aurkeztea Argentinako jurisdikzioan irekitako prozeduran, Francoren diktadurak egindako krimenengatik erantzukizun penalak argitzeko, ekimen judizialak Espainiako epaitegietan zabalitzeko asmoz. 2017ko otsailean.



Udalak Argentinako jurisdikzioak irekitako auzian akusazio gisa aurkezteko prozedura hasi zuen. 2019ko ekainean bildutako dokumentazio guztia Argentinara eta Eibarko Epaitegiara igorri zen. 2019ko irailean Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiak auto bat eman zuen, kereila izapidetzea ez onartzea eta auzia artxibatzea erabakitzeko eta horren kontrako helegitea aurkeztu zuen Udalak Gipuzkoako Auzitegian.

## Digitalki egokitzeko laguntzak merkatarientzat

>>> Eibarko Udalak 100.000 euroko partida duen dirulaguntza prestatu du herriko merkataritza-establimenduei digitalki egokitzen laguntzeko. Denda bakoitzak 2.000 euro eskuratu ahal izango ditu gehienez eta eskaera uztailearen 20tik irailaren 30era arte egin ahal izango da. Diruz lagundu daitezkeen gastuztat hartuko dira ekipamendu informatikoan egindako inbertsioak, marketin digitaleko produktuak eta estrategiak merkaturatzeko kanal berriak garatzeko era ezartzeko beharrezkoak diren ekipo eta programa informatiko espezi-fikoak; enpresaren web-orrien



garapena, bai eta kasu bakoitzean daudenak egokitzea edo hobetzea ere; eta egokitzapen digitaleko eta/edo dibertsifikazioko proiektuak ezartzeko eta abian jartzeko aholkularitza-gastuak.

## Erosketa-bonuen kanpainaren eragina 515.000 eurokoa izan da

>>> Udalak herriko merkatariei laguntzeko asmoz abiarazitako "Nik Eibarren erosten dot" kanpainak izandako eragin ekonomikoarekin pozik daudela adierazi dute, "helburuak erabat bete direlako". Merkataritzarako 6.650 bonu ipini zituzten salgai eta denak agortu ziren, eta ostalartiztan, berriz, 2.850 bonueta-

tik %40 saldu dira, Udalak berak emandako datuen arabera. Ekainaren hasieratik uztailearen hasierara bitartean garatu den kanpainan 200 bat establezimenduk hartu dute parte, 143 denda eta 40 taberna eta jatetxe inguruk, eta bonuei esker lortu den eragina 515.000 eurokoa izan dela eman dute aditzera kanpainaren arduradunek.



## Gipuzkoa Passport Armagintzaren Museoan eskuratu daiteke

>>> Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako Gipuzkoa Passport delakoa eskuragarri dago Eibarren. Izan ere, Gipuzkoako herri bakoitzean doako pasaporte eskuratzeko puntu bat jarri du eta gurean Armagintzaren Museoan (Portaleko 5. solairuan) jaso ahal izango da agiria. Gipuzkoa Passport izeneko pasaporte ofizial baten antzeko formatua daukan gida da, eta bertan "galdu ezin diren 50 plan" kontsultatu daitezke. Adibide gisa, Eibarren proposatzen duen plana Armagintzaren Museora bisita egin eta

taberna-ibilbide bat egitea da. Horrekin batera, atal batean titularrak egiten dituen planen artean gehien gustatu zaizkionen zerrenda osatzeko aukera dago eta, nahi izanez gero, establezimendu gogokoenen (denda, taberna, museo...) zigiluak jarri ahal izateko beste atal bat dauka pasaporteak. Gainera, pasaporteak Gipuzkoako 32 turismo-bulegoei buruzko informazioa biltzen du. Informazio guztia Deba eta Mutrikuko Turismo Bulegoetan edo [www.gipuzkoaturismoa.eus](http://www.gipuzkoaturismoa.eus) atarian eskuratu daiteke.

## Sare Herritarrak egunean hasiko den bizikleta martxa antolatu du

>>> Sare Herritarrak hirugarren bizikleta itzulia antolatu du uztailaren 23, 24 eta 25ean, Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia batuko dituzten hainbat martxarekin. Aurtengoa, ordea, edizio berezia izango da, COVID-19a dela eta ezarritako egoerak dakartzan oztopoak eta hartu beharreko segurtasun neurriak direla eta. Horregatik, 2020ko bizikleta itzulia hiru egunetan egingo diren etapa ezberdinek osatuko dute. Antolatzaileen berbetan, "uztailaren 23an. Lekunberritik Hernanira martxa egingo dugu, Nafarroa eta Gipuzkoa batuz. Uztailaren

24ean. Urduñatik Durangora egingo dugu martxa Araba eta Bizkaia lotuz. Eta azkenik, uztailaren 25ean, lau etapa izango ditugu, Euskal Herrian dauden lau espesietatik hiriburuetara (Zaballa-Gasteiz, Basauri-Bilbo, Iruñeko espesietatik-Iruñea, Martutene-Donostia). Bizikleta hartu eta gurekin batera bidea egitera animatu nahi zaituztegu, guztion artean kilometroak egiten jarrai dezagun. Bizikleta itzulian izena emateko [www.sare.eus](http://www.sare.eus) web-orrian sartu behar da eta bertan, bizikleta itzulia dioen atala zabaldua, izen-ematea bete".



<b>FUNEUSKADI</b> Grupo Aostea	<b>FUNERARIA MUGICA</b> Funerariak
<b>TANATORIO OIBAR</b>	<b>TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR</b>
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a>	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	

*Behorapenak*

**TALLA ETA ZABALERA BEREZIAK** **Lahidalga**  
ERREBAL, 18 943 203 991





## Maskarak derrigorrezkoak dira, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere

>>> Atzoz geroztik EAEn derrigorrezkoa da maskara erabiltzea, eguazten eguerdiko agerraldian Nekane Murga Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailburuak jakinarazi zuenaren arabera. Sailburuaren berbetan, “birusak, desagertu beharrean, zirkulatzen jarraitzen du” eta, gainera, azken orduotan kutsatzeak nola handitu diren ikusita, “neurri berriak” hartzea erabaki dute.

Eguazten gauerdiaz geroztik, beraz, maskara erabiltzea derrigorrezkoa da “kalean eta espazio publiko itxietan, pertsonen arteko distantzia edozein izanda ere”. Ez da hori hartutako neurri bakarra. Ostalaritzari dagokionez (tabernak, jatetxeak, elkarte gastronomikoak...) aurrerantzean maskara erabili beharko da beti eta bakarrik kendu ahal izango da jan edo edateko unean. Gainera, mahai baten inguruan gehienez ere 10 lagun egon ahal izango dira, bai establezimendutik kanpo bai establezimenduaren barruan, eta ordutegi-luzapenak eten egin dituzte. Hondartzetan eta igerilekuetan ere derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea “joan-etorrietan”. Toallan etzan edo jartzerakoan kendu ahal izango da bakarrik, “betiere metro eta erdiko tartea gordetzen bada, edo pertsonak elkarbizitza unitate berekoak badira”.

Haiek dira momentuz hartu dituzten neurri berriak, baina Murgak ez du baztertu pandemiaren bilakaeraren arabera neurri berriak aplikatzea. Izan ere, hilabeteko tartean gure inguruan kutsatzeak geratuta egon badira ere, egun gutxitan asko aldatu da egoera: 24 orduko tartean, martitzenetik eguaztenera, 60 positibo atzeman zituzten EAEn PCR proben bidez. Kasu berrietatik 41 Gipuzkoan atzeman zituzten (horietako hiru Eibarren). Bi egun aurretik Eibarren beste kasu bat atzeman zuten, positiborik gabe justu hilabete eman eta gero. Aldizkari hau inprentara joan aurretik beste 4 kasu berria azaldu dira, eta iturri ez ofizialen arabera, badirudi kopuruak goranzko joearari jarraituko diola datozen egunotan, proba gehiago egiten joan ahala. Gauzak aurrera, gaurtik aurrera ostalaritzari neurriak zorrotz dizkiote gurean, edukiera eta ordutegiei dagokienez, baita elkarte gastronomikoei ere.

## Ikastolan elkarrekin ibilitako aspaldiko lagunen bazkaria

>>> Hilaren 4an 1966an jaio eta ikastolan ibilitakoen bazkaria ospatu zuen argazkian dagoen taldeak. Bazkaritarako menua pentsatzen hasita, zer okurritu eta basurde-jan ederra egitea erabaki zuten. Pentsatu eta

egin, bapo bazkaldu zuten ikastolako umetako lagunek. Beste batzuk ere euren adibideari jarraitu eta basurde-jan gehiago antolatuz gero, Ipurua inguruko basurdeen kopurua murrizteko modua izan daiteke.



## Datorren astean bilduko da artilea Debabarrenean

>>> Debemen Debabarrena Landa Garapenerako elkartetik azaldu dutenez, “artilea dela eta, buru belarri lanean dihardugu, etorkizunean artilea baliozko den baserriko produktua izan dadin. Gipuzkoan artile bilketa modu antolatuan egiteko hainbat eragile aritu gara: Gipuzkoako Foru Aldundia, ardi sektoreko elkarteak, gestio etxeak, nekazaritzako

sindikatuak eta Landa Garapenerako elkarteak. Bilketa zerbitzua ahalik eta modu simple eta merkeenean egiteko prozedura landu eta adostu dugu. Aurten go antolakuntzaren ezaugarria sektorearen inplikazio zuzena izan da. Bestalde, mankomunitateen lankidetzaren eskertu nahiko genuke, beraien esku-menekoak diren Epeleko eta Lapatxeko zabortegietan jasoko delako Debabarreneko artilea”. Bilketa zerbitzuan interesa duten artzainek Lurgintzako 696 433 602 telefonora deitu behar dute ahalik eta azkarren eta bertan azalduko zaizkie entregatzeko eguna, ordua eta tokia. Aurten derrigorrezkoa da aurrez hitzordua eskatzea. Debabarrenako herrietarako bi puntu ezarri dira uztailearen 22rako: Soraluze eta Eibartik Bergarara jo beharko dute (Epeleko zabortegira) eta beste herrietatik, berriz, Azpeitira (Lapatxera).





## Eitzagako auzokideak haserre eta kezkatuta daude

>>> Eitzagako bizilagunek euren "haserre apalki laburbiltzen duen idatzia" igorri dute komunikabideetara, "konturatu zaitezten denok, bertan bizi diren 37 auzokideak nola ahaztuak eta gehiegikeriaren egoerako sentsazioarekin bizi diren, baita bertan gure bizitza partekatzen dugunok".

Salatzen dutenez, "benetako biktimak, Joakin, Alberto eta euren hurbilekoekin batera, baita Ermua eta Eibarko bizilagunekin batera ere, zaborteziaren barrenean bizi eta han egon direnak dira. Zortzi urtetako esplotakuntza erraldoia, administrazioaren inongo neurri eta kontrol barik, eta guretzat benetako erantzuleak direnak beste alde batera begira... Inork ez du bizilagun horien osasunaz hitz egiten, hori da guk ikusten dugun arazo nagusia eta beste kezka batzuen gainetik dagoena".

Prentsarako idatziko lehen berbak desagertutako bi langileentzat eta ingurukoentzat dira eta, diotenez, "bost hilabete eta gero ez zaigu batere arraroa egiten, gure antzera, baztertuak eta ahaztuak sentitzea. Gure hurbiltasuna eskaintzen diegu.

Eitzarrak beti gogoratzen gara eurekin eta sarritan auzokoren batek lora eskaintza egiten diegu plazako zutabeetan. Gure babes bakarrak izan dira otsailaren 16an Eitzara ingurueta herrietatik antolatutako manifestazio erraldoia (bihotzez beti eskertuko duguna), egoera gogoratzeko aldiro antolatzen diren manifestazioak, Zaldibarko oposizioko taldearen postura irekia gure eskakizunak bideratzen laguntzeko, eta kitto. Beste inork ez du hemen geldialdirik egin, komunikabideak euren irudiak ateratzen dituzte euren erreportariekin, eta gure osasun egoerari buruz ez dago ezer. Iraingarria egiten zaiguna da orain, Ingurumen sailaren, Osasun sailaren eta Jaurlearitza-ren postura, euren kudeaketa onari buruz hitz egiten ordu guztietan medioetan agertzea, benetan kudeaketa anker baten babesle izan direnean.

150. eguna bete denean, kudeatzaile fantastiko hauek ez digute egun on ere esan. Etxetik premia ateratako familiei orain dela aste bate eskas, autopista zabaldu dutenean, eman diete itzultzeko baimena eta pozik".

Auzotik kamioiak pasatzeari lagatzeko euren eskaerari kasurik ez diotela egin eta kezkatzen dira eta, hori gutxi balitz, lurren azterketen emaitza kuantifikaturik ez dutela orain arte atera salatu dute.

Zortzi urte eta gero orain ere kutsatzen jarraitzen dutela salatu dute auzokideek: "Ermutik ikusten duten kea ez da sua, kamioiek jasotzen duten hautsa baizik. Lurrean nahastuta dagoen zikina, amiantoa eta batek daki zer gehiago, haizeak jaso eta Eitzaga eta ingurueta banatzen duena".

Zortzi urtez kutsadurapean egon direnentzat azterketa medikuak lehen egunetik eskatu dituzten arren, haserre daude orain arte inork ez duela horren inguruan ezer egin: "Auzokoen osasun azterketari buruz, batzar askoren ondoren Zaldibarko alkateak onartu zuen eta hitza eman, ekainaren 16ko auzoko batzarrean, Udalak horretarako aurrekontu bat bideratzea, denek onartzen badute, gaur egungo egoeratik Osasun sailetik bideratzea gaitza delako. Guk prestatu genuen eskakizun idatzia, Alkateari bideratu edo, eta pentsa gure harridura, hirugarren egunean ukatu egin zutenean denon aurrean emandako hitza".

## AUTUAN

### SUKALMENA IKERKETARAKO BOLUNTARIO BILA

Basque Culinary Center-en Sukalmena (sukaldata + ahalmena) izeneko ikerketa-proiektuari ekin diote eta boluntarioak behar dituzte, premia. Betebeharrekoak 2. motako diabetesa eta gainpisua edo gizentasuna izatea, bi horiek dira. Boluntarioen laguntzaren truke eskaintzen dituzten artean, besteak beste, osasuntsuak diren sukaldaritza teknikak ikasteko aukera, bertako txefek sortutako errezetak prestatzea eta norberaren gorputz-konposaketarekin erlazionatutako txostena jasotzea daude. Interesa izanez gero, zuzenean eman daiteke izena [www.sukalmena.com](http://www.sukalmena.com) helbidean, [proyectosid@bculinary.com](mailto:proyectosid@bculinary.com) helbidera idatzita edo, bestela, 683 512 569 / 682 395 326 telefono zenbakietara deituta.



### JABETZE ESKOLAKO IKASTARO BERRIAK

Udazkeneko Jabetze Eskolako ikastaroetan izena emateko epea irailean zabalduko da, baina nahi izanez gero prestatu duten eskaintza begiratzeko aukera dago interneten, Berdintasuna-Andretxearen web orrian: "Autodefentsa Feminista, Feldenkrais: Autokontzientzia mugimenduaren bitartez", "Dantzen fusioa", "Jabetzerako yoga", "Afrikako dantzak tailerra" eta "Nire zirrarak paperean eta oihalean marraztuz".



Gilen Garcia **DEBEGESA**ko zuzendari nagusia

## “Debegesak ardura du euskararen normalizazioan”

### Nola jaso duzue erakunde moduan Euskaraldian parte hartzeko proposamena?

Eskualdeko Udalek osatzen dute Debegesa eta Eibarko Udalak du pisu handiena. Beraz, Eibarko Udala ekimen horretara batu den neurrian, Debegesari gonbitea egin dio eta Debegesak parte hartzea erabaki du.

**2018ko edizioan parte hartu zenuen?**

Bai, aurrekoan maila indibidualen parte hartzeko aukera bakarrik zegoenez, norbanakoen bitartez komunitatea aktibatzea zen asmoa.

### Zerk bultzatu du Debegesa entitate moduan Euskaraldian parte hartzera?

Ekimen oso garrantzitsua da euskararen biziraupena bermatzeko. Azken batean, erabilerari loturiko ekimena da. Erakunde ezberdinetan eta

administrazioan euskararen erabilerak hizkuntzaren normalizazioa ekarriko du, eta hor Debegesa bezalako erakundeek ardura handia dute. Orain arte gaztelera erabili izan den gunek direnez, euskalduntzea eta euskararen normalizazioan pausoak ematea oso garrantzitsua da. **Zer esango zenieke beste entitateei Euskaraldian parte hartzera animatzeko?**

Euskaraldia ekimen garrantzitsua dela. Badakigu ditugun nagitasunak eta lana egitea exijitzen diguten gauzak egitea kostatzen zaigula, baina merezi du eta, gainera, plazera da. Gure herriak euskaraz bizi ahal izateko pauso eta ahalegin txiki asko egin behar ditugu. Ahalik eta jende gehienari Euskaraldian parte hartzeko gonbidapena egin nahi diet, guztion artean lortu dezakegulako.



**TWINS** dendako Cristina Garcia

## “Entitate guztietan euskaraz egin beharko litzateke”

### Zergatik erabaki duzue Euskaraldian entitate bezala parte hartzea?

Interesgarria iruditzen zaigu, euskararen erabilera bultzatzeko balio duelako.

### 2018ko Euskaraldian parte hartu zenuen? Nolako esperientzia izan zen?

Bai, Josune nire lankidea ‘ahobizi’ izan zen eta ni ‘belarriprest’. Esperientzia ona izan zen.

### Zergatik da garrantzitsua zuentzat elkarte moduan parte hartzea?

Entitate guztietan euskaraz

berba egin behar dela uste dugulako.

### Euskarari dagokionez, nolakoa da zuen egunerokoa dendan? Bezeroek erabiltzen dute? Eta zuek?

Egunerokoa ona da. Josunen ama hizkuntza euskara da eta nik ahal dudana guztietan egiten dut.

### Zer esan nahi diezu Eibarko entitateei Euskaraldian parte hartzeko?

Animatu daitezela, euskera aurrera ateratzeko delako. Gainera, ez zaigu asko kostatzen eta denon artean lortuko dugu.



# MULTIÓPTICAS

## GURE IKUSMEN-OSASUNA ZAINTEKO AHOLKUAK

Konfinamenduan egunak eman ditugu aire zabaleko jarduerarik egin gabe; gure begiek, ordea, ezohiko gainkarga izan dute, orduak eman baititugu ordenagailu aurrean telelanean, telefonoarekin, eskolako lanak egiten, irakurtzen...

Pertsonen **%60k** adierazi du konfinamenduan ikusmenean eragozpenen bat nabaritu duela pantailak erabiltzeagatik.

Pantailekiko esposizio handi horren sintoma nagusiak honako hauek dira: buruko mina, begien erremina eta gorritzea, begien lehortasuna, enfokatzeko zailtasuna eta ikusmena okertzea.

Multiópticas-en gure pazienteen ikusmen-osasuna modu integralean zaintzen dugu.

### Honako hauek detektatuz:

Zergatik sentitzen dugu ondoeza begietan?

Distantzia laburreko lanen gehikuntzak **begien lehortzea** dakar, modu inkontziente baten begi-kliskatzea gutxitzeko joera baitago eta, horrenbestez, malkoen lurruntzea areagotu egiten da.

Gailu elektronikoen igortzen duten argi urdin-moreak **ikusmenean nekea eta estresa** sortzeko ahalmen handia du. Argi sentiberak diren makulako zelulei kalte egiten die argi horrek, eta kontuan izan behar da, erregeneratzeko gaitasun gutxi duten ehunak direlako.

### Ohitura osasungarriak sustatuz:

- 20 minuturo **atseden** hartu, eta urrutiko objektu bati begiratu 20 segundoz.
- Begiak** 10 aldiz kliskatu aldian-aldian, begiak bustitzeko.
- Ahal den neurrian argi naturalarekin **argiztatu**.

### PANTAIEN ERABILTZEAK SORTUTAKO TRABA GARRANTZITSUENAK:



- Mantendu 40-70 cm-ko **distantzia** mugikor, tablet edo ordenagailuarekiko, eta telebistatik bi metro baino gehiago.

### Teknologiari handieneko produktuak eskainiz:

- Honako hauen aurrean babes handieneko lenteak:
  - ✓ **UV izpiak**, ezinbestekoak kanpoaldean.
  - ✓ **Argi urdina**; tratamendu aurreratuenean gehiago blokeatzen dute, eta gardenak dira ia hondar-kolorerik gabeak.
- Ukipen-lenteak:
  - ✓ **Argi urdinerako iragazki babeslearekin**.
  - ✓ Distantzia laburretara luzaroan enfokatzeko denean, begiak neka ez daitezkeen **laguntza moldatzailearekin**.
  - ✓ **Foku anitzeko ukipen-lente pertsonalizatuak**, lente oftalmiko progresibo aurreratuenean osagarri perfektu gisa.
- Garbitzeko, eraginkortasunez hidratatzeko eta maskarak erabiltzeak eragindako lausotzea saihesteko **likido**-sorta zabala.

ARGI URDINETIK BABESTEKO  
EKIPAMENDUA  
BETAURREKOA  
+  
LENTILLAK  
(6 hilabete)

**199€**

Baldintza 2020/01/01 ar. Konturatu gure konpainiaren arazoak.



Bidebarrieta, 2  
Tel: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)



<<< ...eta kitto! Euskara Elkarte >>>

## “Ikasturte berria eta normaltasun berria ...eta kitto!ren jardueran”

2020. urtea ez dugu erraz ahaztuko. Begibistakoa da egoera berezi hau oraindik ez dela amaitu, eta gure bizimodua moldatzen eta egokitzen jarraitu beharko dugula, momentuko egoera eta baldintzen arabera.

...eta kitto! Euskara Elkarte ari da datorren ikasturte izango dena antolatzen eta egokitzen; hamaika eszenatoki aurreikusi ditugu gure jardunak, ahal den neurrian, etenik izan ez dezan eta euskarak edo euskararen erabilera bultzatzeko garatzen ditugun programek aurrera jarrai dezaten.

Berbetan mintzapraktika programaren aurkezpena eta zabalkundea inoiz baino lehenago egingo ditugu, irailaren 14-18ko astean, hain zuzen. Izen-emateari ere iraila hasieran ekingo diogu eta ikasturte hasieratik eskainiko ditugu online taldeak ere.

**B** GURASOAK  
BERBETAN

Gurasoak Berbetan jaialdirik ezingo dugu Untzagan egin, ezta auzoz-auzo egiten genituen ekitaldiak ere; horren ordeztu, ikastetxeen kanpoaldean egongo gara gurasoei banan-banan eta osasun neurri guztiak zainduta programaren nondik norakoak azaltzen eta ikasturteko esku-orriak banatzen. Umeentzako sorpresatxoa ere egongo da!

Berbetaneko taldeak aurrez-aurre elkartetik online elkartu ahal izateko prozedura guztiak ezarri ditugu; ekintza osagarrien artean ere moldaketak egin ditugu eszenatoki bakoitzaren arabera, eta aukera desberdinak prestatu ditugu...

Txikitto! hilabetekaria uztailean prestatzen dihardugu, ikasturte hasierarako urtea amaitu bitarteko ale guztiak prest egon daitezzen; horrela, egoerak hala behartuta ikastetxeak itxiko balira LHko ikas-

leeketxera eramango lituzkete ale horiek guztiak.

San Andres Bertso Paper lehiaketa ere ikastetxeen bitartez zein online egiteko prestatzen dihardugu, egoeraren arabera modu batera edo bestera egin ahal izateko.

Euskeraz Primeran! programa -zerbitzuen sektorean euskararen erabilera eta mintzapraktika aregatzeko helburua duena- garatzen jarraituko dugu. Sektorea babesteaz gain, euskararen erabilera bultzatuko dugu paisaia linguistikoa zein ahoz ematen diren elkarriketak erraztuko dituzten hiztegi-posterrak erabiliz. Aipatutakoaz gain, egoera honetan berebiziko indarra hartu duten sare sozialetan eragiten jarraituko dugu; izan ere, gaur egun Facebook eta Instagram moduko sareak dira denda eta taberna askorentzat erakusleho nagusia.



Baina beste hainbat jarduerak ezin izango ditugu egin: Arrateko jaietan ez dugu Kittonbola jartzeko aukerarik izango, Arrateko bertso-afaririk ez dugu egingo, oso kolokan daude Sagardo Eguna eta Pirritx, Porrotx eta Marimotzen emanaldiak... Egoera ez da erraza, inondik inora ere, eta horrek Gabonetako otarrerako rifak lehenbailehen saltzen hastera eraman gaitu.



Asko izan ziren atzo ...eta kitto! Euskara Elkartearekin bat egin eta Gabonetako otarrerako rifak erosi zituztenak. Urtero lez, Gabonetako otar zoragarria eta erosketa-txartela zozketatuko ditugu abenduaren 9an, eta aurten ere El Corte Ingles-en babesa izango dugu. Egoerak hala behartuta, inoiz baino lehenago irten da ...eta kitto! kalera rifak saltzera; normalean urrian hasten bagara ere, aurten bizi dugun egoera kontuan hartuta data hori uztaileira aurreratu behar izan dugu. Datorren egunean ere kalean ibiliko gara, osasun-neurri guztiak bermatuz, zuen babes eta elkartasunaren bila.

Gabonetako OTARRA

**1.500 €ko**  
balioa duen Otarra

1.000€ produktuetan eta 500€ko erosketa-txartela

Zozketa 2020ko  
abenduaren 9an  
egingo da

Prezioa: 1€

Zbk:

**eta  
kitto!**

Euskara Elkartea

Inklusioa 15 egunetako agertzen ez bada,  
arabiarren osteko zozketa izango da.

## Harrera ona izan dute Euskeraz Primeran!-eko txuletek



Aurreko asteko eta aste honetako merkadilloan izan da ...eta kitto! Euskara Elkartea Euskeraz Primeran! kanpainarekin. Erosketetan ere lehenengo berba gutxienez euskeraz izan dadin gogoratzen jardun du ...eta kitto!-k merkadillotik pasatu direnen artean. Horretarako aurten txuletak banatu ditu, erosketak egiterakoan erabiltzen diren esaldirik ohikoenak jasotzen dituzten txuletak, jakina: "Azkena zein da?, zenbatean dago kiloak?"... eta horrelakoak. Horrez gain, Euskeraz Primeran!-eko poltsak ere banatu ditu ...eta kitto!-k merkadilloko bezeroen artean.

Bestetik, herritarren iritzia ere jaso nahi izan du ...eta kitto! Euskara Elkartea eta galdera egin die, ea erosketak egiterakoan euskera erabiltzen duten eta Eibarren euskeraz erosi ahal den.



>>> "Dendetan sartzen naizen bakoitzean euskeraz egiten dut beti, lehenengo hitza bai behintzat. Baina egia aitortu behar badut, gero, egunerokoan, erderara jotzen dut gehiago. Baina dendetan beti euskeraz, ez bada saltzaileak ez dakiela.

Irizten zait Eibarren jendeak gero eta ahalegin handiagoa egiten duela euskeraz berba egiteko, eta Euskeraz Primeran! moduko ekimenak oso garrantzitsuak dira jendea kontzientziazteko".



>>> **Belen Arana**

>>> "Nik erderaz hitz egiteko ohitura daukat, gaztetan etxean bai baina lagunartean euskera egiten ez genuenez asko galdu dut. Dendetara joaten naizenean ahalegintzen naiz euskeraz eskatzen, gauza laburrak direnean batez ere, baina joera daukat erderaz egiteko. Euskeraz Primeran! moduko kanpainak jendea kontzientziazteko oso baliogarriak direla iruditzen zait. Nik behintzat pentsatuta daukat, jubilatzen naizenean euskera ikasten hasiko naiz, baina ganoraz!".



>>> **Perdiñanda Goigana**



# Itxaropena galtzeko zorian

Bizitzak hainbatetan kolpatu du Hasna, batzuetan gogor gainera, baina beti izan du altxatzeko eta aurrera egiteko adorea. Azken kolpeak, ordea, jota laga du, aurrera jarraitzeko esperantza galtzeko zorian. Zulo ilunean sartuta, bere alaba da bizitzari argi izpia ematen dion elementu bakarra, etorkizunera begiratzeko haria. Hunkituta eta bizitzea tokatu zaion egoerak eragindako etsipenarekin, bere istorioa kontatu digu.

**H**asna Bendriss berberea da. Maroko hegoaldean jaio zen eta orain dela 20 urte inguru Bartzelonara joan zen bizitza berria hasteko. Katalunian hainbat urte pasa ondoren, 2012an Frantziara joan zen eta bost urtez egin zuen lan bertan. Orain dela lau urte, ordea, Eibarrera iritsi zen eta hemen hasi da bere amesgaiztoa.

Hasnak lan asko egin du bizitza osoan. “Denetarik egin dut. Hemen, adibidez, Portalea tabernako sukaldean egon nintzen lanean”, gogoratzen du. Baina orain dela bi urte alaba jaio zen, eta baliabide eta laguntzarik gabe, bera zaindu behar izan du ordutik, lana aurkitu ezinik.

Alaba da Hasnaren itxaropen argia, momentu ilunetan zoriona ematen diona, baina aitortzen du haurdun geratu zenetik oso txarto pasa duela: “Sasoi hartan gaur egungo egoera biziko nuela jakingo banu...”. Ezinezkoa da etorkizuna asmatzea, baina haurdun gelditzeak

Hasnaren bizitza guztiz aldatu zuen. “Alaba eta biok bakarrik bizi gara hemen, berak ez du aita ezagutzen. Ez dugu inor”, Hasnaren berbetan. Izan ere, senarra Marokon bizi da eta ez du hona etortzeko aukerarik.

Hasna arduratzen da alaba zaintzeaz eta hezitzeaz, eta baliabiderik gabe ahal duena egiten du. “Ezin dut alaba bakarrik laga eta, ondorioz, ezin dut lanik bilatu. Eta ez dudanez lanik egiten, ez dut dirurik alaba haurtzaindegira eraman

edo zaintzaile bat kontratatzeko”, dio Hasnak. “Alaba haurtzaindegi publikora eramateko senarraren paper ugari eskatzen dizkirate eta ezinezkoa da horiek lortzea. Adibidez, orain dela hainbat urteko errenta aitortpena aurkeztu behar dut. Marokon ez dago horrelakorik! Beraz, paper horiek barik, ezin dut alaba haurtzaindegira eraman eta, ondorioz, lana bilatu”, dio. Ez da Hasnaren bizitzan gertatzen den gurpil zoro bakarra.

## Gurpil zoroan

Alaba jaioberriarekin, lan barik eta baliabide urriekin, Hasnak RGIA kobratzeko eskaera egin zuen orain dela bi urte eta onartu egin zioten. Diru horrekin hala nola bizitzeko aukera izan dute biek, baina RGIA berritzeko ordua iritsi denean laguntza ukatu diote. “Esan didate senarra hemen bizi ez bada, ezin didatela eman. Baina bera inoiz ez da hemen bizi izan. Ezkonduta gaude, bai, baina

bera Marokon dago, gu hemen, eta ez dugu inolako harremanik. Gainera, lan egin barik, ez dut ‘berriz-elkartze familiarra’ egiteko aukerarik ere eta hori egin barik ezin didate laguntza eman”, azaldu digu. Gurpil zoroa berri ere.

Hasnak mila ate jo ditu, baina itxita aurkitu ditu. “Ez nuen pentsatzen alaba txiki batekin eta egoera honetan baztertuko nindutenik, baina gizarte-laguntzaileak dio ezin duela ezer egin eta nik ia amore eman dut. Alabarengatik bakarrik egiten dut aurrera”, esan digu mal-koei eutsiz.

Hasna etsita dago eta alkaterekin elkartzeko eskaera ere egin du, “baina gizarte-laguntzailearen ustez ezin bada ezer egin, alkatetzatik diote ezin dezaketela ezer egin”. Bere indarra agortzen doa eta erakunde aldetik laguntza gutxi espero du.

## Etxe barik geratzear

Martxoaz geroztik Hasnak

**“Ez nuen pentsatzen alaba txiki batekin eta egoera honetan baztertuko nindutenik”**





Hasnak bizi duen egoera gogorraren berri eman nahi izan digu. EKHI BELAR

ez du diru-sarrerarik izan eta egoera lazgarria muturreraino heldu da. “Etxea alokatzen digun ugazabak ultimatuma eman zigun joan den astean. Kalera bota nahi gaitu eta ez dut irtenbiderik aurkitzen”, esan digu arduratuta. “Bost hilabete daramatzat alokairua ordaindu ezinda. Inoiz ez zait hau gertatu, beti puntuala izan naiz ordainketekin”, bere berbetan.

Alaba abenduan hasi daiteke haurreskolan, baina ordu-ra arte berarekin egon behar da momentu oro, ez duelako inorekin lagatzeko aukerarik. Beraz, gauzak horrela eta koronabirusak eragindako egoera kontuan izanda, zaila ikusten du lana aurkitzea. “Ez dugu ezer”, dio atsekabez.

### Laguntza urria

Egoera estua bizi arren, alaba osasuntsu dago (nahiz eta, kasualitatez, elkarrizketa egin genuenean sukarra zuen), baina Hasnak antsietatea du. “Ezin dut lorik egin, antsietate-atakeak izaten ditut, eta burua galtezko zorian nago”, aitortu digu. “Gauza asko pasatzen zaizkit burutik, etsita nago, ez dut argirik ikusten tunelaren amaieran eta ez dakit nola egingo dugun aurrera. Batzuetan gauean batbatean esnatzen naiz eta alaba alboan dudana begiratzen dut. Amesgaizto batean bizi naiz”. Alaba du helduleku bakarra eta laguntza oro esker onez jasotzen du.

Itxialdian Gurutze Gorrikoak etxera joan zaizkio elikagaiak eramateko eta Caritasera hots

## “Egoera hau bizi egin behar da ulertu ahal izateko. Edozein gauza esanda, motz geratzen naiz”

egin du laguntza eske. “Ahal den neurrian lagundu digute eta asko eskertzen dugu”, Hasnak dioenez. Norbanako batzuek ere laguntza eskaini diete eta Hasnak dioenez, “beste pertsona bati gure istorioa

kontatzea, besteek entzutea eta ulertzea garrantzitsua da niretzat. Gutxi bada ere, kontatzeak eta barrua husteak lagundu egiten du”.

Inoiz ez zuen imajinatu horrelako egoerarik biziko zuenik eta, gogor saiatzan bada ere, aitortzen du ezin duela barruan duena ondo azaldu. “Egoera hau bizi egin behar da ulertu ahal izateko. Edozein gauza esanda, motz geratzen naiz”, dio.

Hasnaren ustez bizitzak jarri dion azterketa bat da hau. “Bizitza amaierarik gabeko eskola da, beti ikasten duzu zerbait”, esan digu. Bere bizitzak liburu bat idazteko adina pasarte dituela dio eta, orain gauzak oso zail ikusi arren, kapitulu beltz hau itxiko duela seguru dago. ■

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

● tartak  
● enkarguak  
etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**M**unduko talde indartsuenen aurka jokatzen ohitu gara? Ez da ospakizun handiak egiteko sasoi aproposa, baina domekan Eibar FT-k matematikoki mailari eutsiko ziola ziurtatu zenean, ez zen txapligu edo garrasi handirik entzun herrian. Lasaitasun hasperenak akaso. Hala ere, bi jardunaldiren faltan lortu du salbazioa. Marka handia hain talde txikiarentzat.

Eibar FT-k jokalaria garrantzitsuak galdu zituen iaz (Joan Jordan, Marc Cucurella, Ruben Peña), baina taldearen bizkarrezurra osatzen zuten hainbat jokalarik jarraitu egin zuten (Sergi Enrich, Fabian Orellana, Jose Angel 'Cote', Dmitrovic...) eta Bigarren Mailan ondo ibili ziren jokalaria fitxatu zituen (Edu Exposito, Quique Gonzalez, Alvaro Tejero, Roberto Olabe...). Fitxaketek, ordea, ez dute eman hasieran espero zen maila eta Jose Luis Mendilibarrek magia egin behar izan du berriz.

Zaldibarko entrenatzaileak urrezko hizkiekin grabatu du bere izena Ipuruako taldean. Aurretik ere toki berezia zuen eibarzaleen bihotzean, baina aurtan, nahiz eta iazko joko erasokor eta erakargarritik urrun ibili, baliabide gutxirekin asko egiteko gauza dela erakutsi du.

### Hasiera gogorra

Lehen Mailan igarotako urte hauetan irabazitako diruarekin Ipurua txukundu du Eibarrek. Denboraldi hasieran mendebaldeko tribunako obrak amaitu zituen, baina horretarako lehen hiru jardunaldiak etxetik kanpo jokatu behar izan zituen.

Etxetik kanpo jokatzea zaila izanik, hasiera gogorra zuten aurretik Mendilibarren mutilek. Lehen jardunaldian igo berria zen Mallorcaren aurka galduz hasi zuten denboraldia, bigarrenean berdindu egin zuten Osasunaren aurka (igo berria hau ere) eta hirugarrenean, nahiz eta ondo lehiatu, 3-2 galdutako Madrilgo Athleticoren aurka.

# Zazpigarren urtez izarren ligan

Egun batean bizigai bilakatu zen izarren hautsa gara, Mikel Laboak zioen bezala. Urrutitik begira izarrek lilurutzen gaituzte, gu geu izarren materialekin sortu garela ahaztuz. Ez gara gauza bera, baina lotura estua dugu. Eibar FT ere ez da Bartzelona eta Real Madril bezalakoa, baina maila berean jokatuko dute beste denboraldi batez. Izarren ligan izar txikiek tokia dutelako.



Bederatzitik puntu bakarra lortuta, Espanyol hartu zuen Ipuruan Eibarrek eta kolpe latza jaso zuen. Ramisek gorriurdinak markagailuan aurreratu zituen, baina txuriurdinek hiru minututan buelta eman zioten eta Eibar jota utzi zuten.

Levanteren aurka hutsean amaitu ondoren, Sevilla talde indartsua izango zen hurrengo arerioa Ipuruan. Nagusitasun handiz eta eibartarren joko eskasarekin, sevillarrak bi goleko aldearekin joan ziren atsedendira. Atsekabetuta, zalegoak argi ikusi zuen mai-

lari eustea zaila izango zela. Lehen Mailako ametsa noizbait amaitu behar zela pentsatu zuten askok, baina bigarren zatian miraria gertatu zen. Taldeak 180<sup>o</sup>-ko aldaketa izan zuen aldageletatik irtetea eta markagailuari buelta eman zion. Neurketa 3-2 amaitu zen eta taldearen animoak berritu zituen, hurrengo partidari Leganesi 1-2 irabazteko.

**16. postuan, arriskutik hurbil** Aurreko denboraldian ez bezala, Eibarrek galdu egin zuen Ipuruan Real Madrilaren aurka.

Mingarriagoak izan ziren gero Alavesen, Realaren eta Getafaren kontra izandako porrotak, eta taldea 16. postura jaitsi zen. Denboraldi honetan taldeak 20 jardunaldi egin ditu sailkapenaren 16. postuan eta, mugitu denean, ez da gehiegi aldentu.

Hala ere, Eibarrek garaipen handiak lortu ditu aurtan ere, Atletico de Madrilaren aurka Ipuruan lortutakoa esaterako, baina ligaren etenaldira bolada txarrean eta zalantzeekin iritsi zen.

Itzulera Real Madril, Athletic, Getafe eta Valentzia izango zituen aurkari eta, gainera, ekainaren 30etik aurrera hainbat jokalaria galtzeko aukera zegoen (gertatu den bezala). Madrilak 3-1 irabazi zion Eibarri, baina bigarren zatian ikusi zen taldeak ez zuela hain erraz amore emango.

Athleticen aurkako derbian taldea ondo lehiatu zen eta berdinketa lortu zuen, eta Getafaren aurka garaipena lortzear egin zen. Emaitzak ez ziren onak, baina sentsazioak bai, eta Valentziaren aurka berretsi egin zituen 1-0 irabazita.

### Azken bultzakada

Taldea utzi aurretik, Fabian Orellanak Eibar garaipenera eramane Granadan eta hurrengo jardunaldian, etxean Osasunaren aurka, taldeak salbazioa ia esku biek lortu zezakeen. Gorriek, ordea, 0-2 irabazi zuten eta lau egun geroago, Sevillan, porrot mingarria jaso zuen Eibarrek (azken segunduan atezain bezala zegoen Ocampos aurrelariak gelditu egin zuen Dmitrovicen jaurtiketa). Zorionez, azpiko taldeek ez zuten alde moztan.

Leganesekin berdindu ondoren, mailaz jaitsi den Espanyol bisitatu zuten domekan eibartarrek. Bartzelonako momentu txarra aprobetxatuz, Eibarrek 0-2 irabaztea lortu zuen eta, Mallorcak Sevillan 2-0 galdutako gero, zazpigarren urte jarraian izarren ligan jokatuko dutela ziurtatu zuten. Eibarrek Lehen Mailako distiraren izaten jarraituko du.





## Ipuruako dorreetatik, Lehen Mailako bistak

Ipuruako dorreak foball zelaiaren ikurrak dira. Eibar FT-ren partidu historikoak ikusi ahal izan dira bertako leiho eta balkoietatik, eta denboraldi honetan jokatu diren azken partiduak ere halakoxeak izan dira.

COVID-19 izurriaren eraginez, LaLigak partiduak publiko barik jokatzea erabaki zuen eta Ipuruako dorreetako bizilagunak izan dira partiduak ikusten jarraitzeko aukera izan duten bakarrak.

Freskagarriak, janaria, familia, lagunak... dorreetako bizilagunek etxeko erosotasunetik goi-mailako ikuskizunaz gozatzeko aukera izan dute leihoaren beste aldean. Mundu osoko zaleek pasio handiz jarraitzen duten espektakulua.




Aurreko asteko eguenean Eibarrek eta Leganesek ez zuten demaseko ikuskizuna eskaini, baina dorreetatik foballa beste modu batean ikusteko aukera izan genuen. Jokalarien aginduak, protestak eta garrasiak entzuteko aukera ematen du ikuslerik gabeko foballak. Foball peto-petoa, artifiziorik gabekoa.













Imanol Magro

Imanol Magro

## Obligazioa

Iritzi hau argitaratzen denerako baliteke kaletik maskara eramatea derrigorrezkoa izatea, baina, badaezpada ere, aurretik esango dut ni neurri horren alde nagoela. Osasun ahul xamarreko jendea dut inguruan, koronabirusaren beldur naiz, eta agian horrek baldintzatzen nau. Maskara babes neurri eraginkorra da, baina ez da guztiz justua, badu gabezia handi bat: filtro onik ez badu, gehiago babesten du janzen ez duena hura eramatearen enbarazua onartu duena baino. Beraz, oso eraginkorra izateko mundu guztiak erabili behar du, eta zentzu horretan harritu egiten nau Eibarren zein jende gutxik daraman. Nire ikerketa soziologiko partikularrak egin ditut kalean, distantzia sozialari eustea ia ezinezkoa den tokietan. Toki jakin batetik denbora tarte batean pasatzen diren pertsonetatik zenbatek daramaten zenbatu ohi dut, eta normalean ez gara heren batera iristen. Konfinamendua neurri zorrotza izan zen, eta haren helburu nagusia osasun sistemaren saturazioa eragozteko zen gaixoak hobeto artatzeko; ez ditzagun berriz bete.

### "Maskara derrigortu behar izatea hezkuntza porrota dela entzun diot askori"

Askatasun indibidualen eta gizartearen onerako diren neurri kolektiboen arteko talka zaharra da. Maskara derrigortu behar izatea hezkuntza porrota dela entzun diot askori: "triste da gero horretara iritsi behar izatea babesteko", esaten dute. Antzeko kasuak dira auto istripuetan laguntza eskaintzea legez derrigortu behar izatea -laguntza ukazioa delitu da-, errenta aitortpena egitea edota zergak ordaintzea. Baina zeren arabera bihurtu daiteke obligazio ustez gizartearentzat mesedegarri den ohitura bat? Zergatik ez gauza bera egin zaborren birziklapenarekin? Txertoekin? Edota odol zein organuen donazioarekin? Soldaduska gehituko luke norbaitek... Edozein poteo edo terraza gau animatzeko moduko eztabaidagai filosofikoa da, eta lagun eta gertukoekin ateratzera gonbidatzen zaituztet. Hori bai, maskara jantzita mesedez, derrigorrezkoa izanda ala ez.



Olatz Etxeberria

Olatz Etxeberria

## Balkoi baten ipuina

Bazen behin hirugarren solairuko balkoi bat aspertuta bizi zena. Etxearen jabeak gutxitan irteten ziren bertara, arnastera bakarrik bazen ere. Balkoiak ez zuen erabilerarik, eta ez zitzaion buruan sartzen zergatik diseinatu eta eraiki zuten erabiltzeko ez bazen.

Denbora pasa zen eta itxuraz aldatu zuten, etxe barrura gehitu beharreko azalera zela otu zitzaion jabeari eta, obrak egin ostean, sala barruan aurkitu zuen bere burua.

Balkoiak ez zekien zer pentsatu; orain, familiaren parte garrantzitsua zela ikusten zuen. Egunero testigu zen bertan gertatzen ziren poztasun eta haserreer, telebista ikusten zuen, musika entzun eta gabonetako bazkarien erdian zegoen. Pozik zegoen, baina bere bizi-erabileraren helburua erabat aldatu zion jabeak eta askotan galduta sentitzen zen, bere jatorrizko helburua aldatu ziotenetik ez zekien zer egitera etorri zer eraikiner.

Baina, bat-batean, familia osoak etxean bizi, ikasi eta lan egiteari ekin zion, zirudien ezin zuten kalera irten denboraldi batean. Lehenengo astea pasa zuten, baina ondorengo asteetan haizea behar zutela ikusi zuten. Kaleko beste biztanleak eta bizilagunak euren balkoietan ikusten zituzten irakurtzen, umeakjolasean edo landareak ureztatzen, eta eurek ezin zuten. Balkoietan kalera irteteko bide bat aurkitu zuten, eta eurek ezin zuten berdina egin egun batean ixtea erabaki zutelako. Damututa zeuden eta etxer aldatzea adostu zuten, balkoia zuen beste etxe batengatik. Denak pozik, itxitako balkoia izan ezik.

Gure laguna, balkoia, berriz, triste, eta bizitzak zentzurik ez zuela sentitu zuen, berriz ere balkoia izateko irrikitan zegoelarik. Jabeek ez zuten maite, ez zuten egongela handiago bat nahi, balkoia baizik.

BALKOIAK ITXI, GEHITU, BERRIZ ITXI... ETA NOIZ BOTA BEHERA??? Ea zer gertatzen den Eusko Jaurlaritzaren araudi berriarekin. Jarraituko dugu beste batean.

**"Gure laguna, balkoia, berriz, triste, eta bizitza zentzurik gabe aurkitu zuen, berriz balkoia izateko irrikitan zegoelarik"**



# “Euskarazko abestiak egiteko gogo handia dugu”

‘Debajo del paraguas’ taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 21ean, martitzenean, 22:00etan, Untzagan. Taldea Los40 Euskadiko ‘Cara A’ saioko lehen postuan birritan izan da, eta Cadena Dialen ‘Dejate llevar’ eta Los40-ren ‘Summer Live’ en bitan hartu du parte. Ainhoa Arroita Jauregi eibartarra da taldearen abeslaria, eta giro ona eta poztasuna ekarriko dute Untzagara.

## Nolako kontzertua egingo duzue?

Gogo handiz prestatu dugu! Segurtasun neurri guztiak beteta, ahalik eta onena eta normalena izatea nahi dugu, eta jendeak asko gozatu dezala. Taldekide gehienak Bilbon bizi direnez, probintzia arteko muga zabaldu arte ezin izan genuen probasiorik egin, baina harrezkerro denok gogor ekin diogu eta kontzertua normal prestatzen gabilta.

## Eszenatoki gainera bueltatzeko gogoz?

Bai! Demaseko gogoa dugu eszenatokira igo, musika jo eta jendearekin musikaz gozatzeko!

## Nola eragin dizue konfinamenduak?

Gogorra izan da, gainerakoen zat bezala. Gogorrena entseatu ezin izana. Hala ere, lanean jarraitu dugu telefono dei eta bideokonferentzia bidez eta kantuak konposatzen jarraitu dugu.

## Itxialdiaren aurretik ‘Ayer te vi’ singlea aurkeztu zenuten. Zeintzuk dira zuen asmoak orain?

Bai, ‘Ayer te vi’ atera genuen eta laster beste bi kantu berri aurkeztuko ditugu. Gure asmoa kantuak konposatzen eta grabatzen jarraitzea da, beste disko bat atera arte.

## Nola sortu zitzaizun taldean sartzeko aukera?

Iazko irailean, Madrilan bizi nintzela, Leyrek deitu zidan abeslari berri baten bila zebiltzala esanez. Probak egin behar



## # AINHOA ARROITAJAUREGI • Musikaria #



nituela esan zidan eta ea interesatzen zitzaidan. Azaroan Eibarrera itzuli nintzen beste arrazoi batzuegatik eta aukera ederra zela ikusi nuen eurekin hasi eta taldeko abeslaria izateko.

## Nola egokitu zara taldera?

Leyre ezagutzen nuen aurretik, eta horrek erraztu egin zuen prozesua. Koldok eta Jonek ere asko erraztu zuten egokitzapena eta ni taldeko parte sentitzea. Oso lagunak gara eta horrek asko laguntzen du talde moduan jarduteko. Aste gutxienez entsegu bat egiten saiatzen gara, entseguetan oso ondo pasatzen dugu eta gauza berriak sortzen saiatzen gara beti. Beraz, asko gustatzen zaigun prozesua da, musika gure pasioa delako. Ez dugu lan bat bezala ikusten, elkarrekin egon, entseatu eta oso ondo pasatzen duen lagun taldea baizik.

## Taldeari zure ukitu pertsonala emango diozula uste duzu? Nolako izango da?

Uste dut asko dudala taldeari emateko, eta baita eurengandik asko ikasteko, baina argi dudan gauza da kantuak euskaraz egiten hasiko garela. Euskal musika asko gustatzen zait eta gure hizkuntzan sortzea gustatuko litzaidake. Taldeak ez du euskarazko abestirik eta euskaraz egiteko gogo handia dugu.

## Eibarko izango da zure lehen zuzeneko ‘Debajo del paraguas’-ekin?

Bai! Nahiko urduri nago, baina gogo handia dut eibartarren harrera ikusteko eta, nola ez, Eibarren jotzeko. Etxean inon baino hobeto!

## Zure herrian izanda, berezia izango da, ezta?

Bai, oso berezia. Kontzertua maitasunez prestatzen dihardugu eta oraingo normaltasun berri honetan musika eta artea ezinbestekoak diren gauzak dira uste dugu. Antolatzen ari diren ekitaldi guztiek harrera ona izatea espero dugu, eta behintzat gurekin gozatzea eta gau polita pasatzea!

&lt;&lt;&lt; MONIKA GARCIA • Erizaina &gt;&gt;&gt;

# “Erakusten badiegu, haurrek ere bizitzak salbatu ditzakete”

Zer egin dezakete haurrek larrialdi egoera batean? Nola lagundu dezakete bizitza bat salbatzen? Monika Garcia eibartarra, erizaina izateaz gain, bi haurren ama da. Konfinamendu sasoiaren, bere seme-alabekin etxean zegoenean, aspaldi buruan zeukan ideiarri forma eman dio eta 4 urtetik aurrerako haurrentzako gida-liburua argitaratu du. Ilustrazioekin lagunduta, argitalpenak ipuin baten itxura du. Modu erakargarri batean, pausoz-pauso azaltzen die umei zer egin behar duten norbaitek bihotz-biriketako geldialdia izaten duenean. Monikak azaldu digunez, bat-bateko bihotz-gelditzearen biktimitako asko bizirik irten daitezke ingurukoek berehala laguntzen badiete.

## Umeentzako liburuxka bat argitaratu berri duzu. Zer kontatzen duzu?

Pertsonaia guztiak benetakoak dira: Maddi eta Irai nire seme-alabak, amama, etxeko txakurra, nire lankideak eta neu... Azalean Maddi eta Irai ageri dira. Lehenengo orrietan pertsona bat bizirik irauteko probabilitatea ahalik eta handiena izan dadin orden jakin batean jarraitu beharreko urratsak eta ekintzak azaltzen dira, hau da, telefono-deia, bihotz-biriketako bizkortze goiztiarra (RCP), desfibrilazioa eta trasladoa.

## Ilustrazioek garrantzi handia daukate liburuxkan, hasieratik amaierara.

Azken batean haurrentzako kontakizun edo istorioa da. Eta ondo azaltzeko eta umeak erakartzeko modurik onena irudi erakargarriak erabiltzea da. Gero guraso bakoitzak ikusiko du nola kontatu ipuina bere seme-alabari.

## Ze istorio kontatzen duzu?

Haurrak amamarekin daude etxean. 5 eta 7 urte dituzte. Bapatean, amama lurrera jausten da. Egin behar duten lehenengo gauza amama ikutu eta mugitzea da ("amama, ondo zaudede?"). Amamak erantzuten ez duenez, Irai laguntza bila doa. Bitartean, Maddik arnasbidea

## "Pertsona bat bizirik jarraitzeko jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira liburuan"



irekitzen du. Segundu batzuetan zain gelditzen da amamak arnasa hartzen duen konprobatzeko. Arnasarik hartzen ez duenez, hurrengo pausora igarotzen da: telefono-deia. Deiak garrantzi handia du; gertatzen ari dena azaldu behar dio 112 telefono zenbakiaren bestaldean dagoen pertsonari eta hainbat datu eman behar dizkio: amamaren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Deia

egin ondoren, bihotz-masajea egiten jarraitu behar dute, gorputza postura egokian jarrita. Ondoren, anbulantzia iristen da eta eurek atea ireki beharko diete osasun-langileei. Amaieran ni agertzen naiz, erizaina, eta baita beste lankide batzuk ere. RCPa (bihotz-biriketako bizkortzea) egiten amaitzen dugu. Amama sendatu egin da eta anbulantziak ospitalera eramanez du, oraindik frogatzen



gehiago egin behar dizkiogulako.

### Liburuaren amaieran oharrak hartzeko hutsuneak azaltzen dira...

Hori da. Bertan, haurrek jakin beharreko datu garrantzitsuak idatzi daitezke: guraso, aitzitxa-amama, zaintzaile edo inguruko besteen izenak, helbideak, telefonoak... Orena liburuaren telefonoaren ondoan edo behintzat eskura egotea da, haurrak ondo ezagutzen duen lekuren batean. Horrelako egoera bat gertatzen denean, normala da haurrak blokeatzea eta ahaztu egiten zazikie telefonoak, izenak... Liburuaren eskura badute, bertan datu garrantzitsuenak jasota izango dituzte, eta oso lagun-garria izango da,

### Nola eskuratu daiteke liburuxka?

Interesa dutenek nirekin zuzenean jarri daitezke harremanetan 653370589 telefonora deituz edo monikaeibar@hotmail.com helbide elektronikoa erabiliz. Liburuak 6,95 euro balio du. A5 formatoan eginda dago. 12 orrialde ditu. Kalitate oneko papera du eta Leire Ramos ilustratzaileak lan zoragarria egin du.

### Zer dela eta animatu zara umeentzako lan hori egitera?

Hori baino lehen, osasun-langileentzako larrialdien liburuaren egin nuen iaz. Mendaroko ospitaleko zirugia arloan lan egiteaz gain, anbulantzia medikalizatueta ere jarduten dut. Oso beharrezkoa ikusten nuen osasun arloko langileen-



Monika Garcia, liburuaren egilea, erizaina da anbulantzia medikalizatueta eta, horrez gain, Mendaroko ospitalean egiten du lan.

## "Aurretik zer egin behar duten jakiteak lasaitasuna eta segurtasuna ematen die haurrei"



Iaz osasun arloko langileentzako larrialdietarako gida kaleratu zuen Monika Garcia.

tzat larrialdi-gida bat egotea. Gutxieneko ezagupenak dituztenentzako gida da. Momentu hartan jende askok esan zidan ondo legokeela jende arruntentzako eta haurrentzako zerbait egitea. Konfinamenduan, umeekin nengoela, ideari bueltak ematen hasi nintzen, ilustratzailea bilatu nuen eta prozesu guztia martxan jarri nuen.

### Denok jakin beharke genituzkeen gauzak direla diozu. Umei larrialdi egoera baten aurrean zelan jokatu behar duten erakusten zaie?

Zalantza barik denok jakin

beharreko gauzak dira, eta, gainera, txikitatik egin beharrekoak. Zorritzarrez, hezkuntza eta osasun arloetan muzin egiten diote. Maddik 3 urte zituenean, borondatez bere ikastetxera joaten hasi nintzen eskularru, xiringa, gasa eta antzerako materialekin. Jolasen bitartez beldurra kentzea zen asmoa. Anbulantzietan lan egiten dudanez, nire ardura-dunekin hitz egin eta anbulantzia eta guzti joan nintzen. Hurrengo urtean berriro joan nintzen, RCP edo bihotz-masajearekin, eta urtero joaten jarraitu du. Argi ikusi dut umei horrelako saioak eskaintzen zaizkienean askoz ere lasaiago jarduten dutela.

### Orduan, txikiak izanagatik ere, neska-mutikoei ondo datorkie larrialdi egoeratan nola jokatu jakitea?

Haurrek, ikasten dutenean, oso ondo egiten dute. Larrialdi egoera batean zer egin behar den jakiteak sekulako lasaitasuna eta segurtasuna ematen digu haurrei zein helduoi (heldu askok ere ez dute jakiten nola jokatu).

### Bizitzak salbatu ditzakegu urrats horiek jarraitzen baditugu?

Pertsona bati bihotza gelditzen zaionean ez badugu ezer egiten, bizirik mantentzeko aukerak murriztu egiten dira. Masaje hori egiten badugu eta zirkulazioa berreskuratzen bada, bizitza-aukerak gehitu egiten dira. Baten batek konortea galtzen duenean eraginkorra konpresioak egiten hastea da.

ezagutzen dituzu gure sare sozialak?

Facebook, Twitter, YouTube, Instagram, gaztekitto

etakitto.eus



# Debarrena Integra-Bat Eginez programaren 15. edizioa martxan

Gizarte bazterte arriskuan dauden langabetuei zuzendutako laneratze eta gizarte txertatze programa abiatu du Armeria Eskolako Elkarteak. Lehenengo fasean gaztelera intentsiboa eta konpetentzia matematikoak irakatsiko dira. Bigarren fasean, FMEE0108 Fabrikazio Mekaniko Eragiketa Osagarriak profesionaltasun ziurtagiria irakatsiko da. Aurre-inskripzioa egiteko epea zabalik dago.

**B**azterte egoeran aurkitzen diren pertsonen zuzenduriko Debarrena Integra-Bat Eginez programaren 15. edizioa antolatu du Armeria Eskolako Elkarteak 2020-2021 ikasturtera begira. Programa hau bi fasetan banatuko da: lehenengo fasea egin eta gero,

1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria egin ahal izateko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Debarrena Integra-Bat Eginez programaren lehenengo fasean gaztelera intentsiboa eta konpetentzia matematikoak irakatsiko dira 186 or-

**Ikasleek 400 ordutako klaseak jasoko dituzte Armeria Eskolan abenduaren 17tik ekainaren 7ra arte**

profionaltasun ziurtagiria irakatsiko da. Ikasleek 400 ordutako klaseak jasoko dituzte Armeria Eskolan, abenduaren 17tik ekainaren 7ra arte, eta gai diren ikasleek praktika profesional ez laboralak egingo dituzte.

Programa horretan parte hartu nahi dutenek Lanbiden eman beharko dute izena lan-eskatzaille gisa, gutxienez 16 urte izan beharko dituzte eta Debarrenan bizi.

**Sarrera froga irailaren 14an**

Bestetik, sarbide froga irailaren 14an egingo dela aurreikusten da Armeria Eskolan eta beharrezkoa izango da alde zuzeneko izena ematea. Aurreinskripzioa, 615 775 556 telefono zenbakiaren bitartez edo Armeria Eskolako 104 Bulegora bertaratu egin daiteke. ■

dutan Eibarko EPAn, irailaren 17tik urtarrilaren 26era arte. Fase hori gainditzen dutenek bigarren fasean parte hartu ahal izango dute. Bigarren fasean, FMEE0108 Fabrikazio Mekaniko Eragiketa Osagarriak







<<< MAIALEN MORENO • Irakaslea eta Euskal Filologian doktorea >>>

## “Irri istorioek, anitzak izan arren, tradizioa dute atzean”

*Euskal ahozotasuna eta irudimena: ondarea, sormena eta transmisioaren ikastaroaren baitan hitzaldia eman du Maialen Moreno irakasle eta Euskal Filologian doktorea. Herri kontakizunak bildu zituen Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan eta bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa egin zuen, gero liburu bihurtu zena.*

*Irri kontakizunak: hitz gutxi, esanahi handi hitzaldian bildu ditu UEUko 48. ikastaroetan.*

### **Nolatan hasi zinen herri kontakizunen bilketan Ipar Euskal Herrian?**

Unibertsitatean istorio eta kondairak irakurri genituen, horietako asko Ipar Euskal Herrikoak, eta oso politikak eta interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Lan bat egin behar genuen eta Askaingo lagun baten aita ezagutu nuen. Lau edo bost istorio luze eta interesgarri zekizkien eta pentsatu nuen: “Pertsona batek lau edo bost istorio badakizki, pixka bat galdetu ezkeru gehiago ere jaso ditzaket”, eta horrela hasi nintzen.

### **Nolako istorioak bildu zenituen?**

Tradiziotik datozen istorioak bildu nituen eta mota desberdinetako istorioak kontatu zizkidaten. Kondairak, ipuin mi-

resgarriak, irri istorioak... Irri istorioak deitutako horien barruan batez ere istorio laburrak aztertu ditut. Laburrak izan ohi dira eta pertsonaia tipo jakin bat dute: apeza, gelaria, medikua edo nekazaria adibidez eta gatazka bat egon ohi da bi pertsonaien artean.

**“Apezak jatunak eta neskazaleak, senarrak askotan adardunak, emakumeak tuntun papera egiten dutenak”**

### **Istorio mota desberdinak dira, eta askok umorea hartzen dute bere baitan.**

Lagun artean kontaktzen ziren istorioak ziren, adibidez merkatuan. Donibane Garazin taberna baten atzekaldean lagun talde bat astelehenero elkartzen zen istorioak kontatzeko.

### **Bilketa orain dela 10 urte egin zenuen, baina istorio asko aspalditik datoz.**

Denetarik jaso nuen, baina tradiziozkoak direnak, bai. Irri istorio hauek askotarikoak, anitzak eta heterogeneoak izan arren, tradizio bat dutela frogatu nahi izan dut. XVI. eta XVII. mendeko bildumetan jasota daudela; adibidez, Poggio Bracciolini italiarrak jasotako kontakizunak oraindik ere kontaktzen diren istorioak dira.

### **Nolako ezaugarriak dituzte pertsonaiek?**

Apezak jatunak eta neskazaleak, senarrak askotan adardunak. Emakumeak lainotasun itxura dutenak, ematen du sexuari buruz ez dakitela, tuntun papera egiten dutenak. Ezaugarri horiek izango lirakete gehienetan errepikatzen direnak.

### **Bilketa honetatik ze ondorio atera dituzu?**

Euskara oso aberatsean dauden istorioak dira eta biltzeak merezi izan du. Askok eta askok, tradiziozkoak eta lagun artean kontatuak, gaur egunera iritsi direnak izan dira. Gaur egungo gazteentzat umore mota hori zaharkitua dago eta ez dituzte ezagutzen ez direlako kontaktzen.

<<< **AINHOA BERCIANO** • Matematikaria >>>

# “Emakumeok ere badugu zeresana STEM arloko diziplinetan”

Ainhoa Berciano Alcaraz ertz asko dituen matematikaria da. Irakasle, ikertzaile eta kudeatzaile lanetan dihardu eta Matematikari Euskaldunen IV. Topaketan hitzaldi nagusia emateko ardura izan du. “Prozesu matematikoen garrantzia matematikaren irakaskuntzan” hitzaldiarekin matematikak hezkuntzan duen garrantziaz aritu da.



## **Haur Hezkuntzatik hasita eman behar genieke garrantzia matematikei?**

Bai, jakina. Haur Hezkuntzan matematikari dagozkion oinarriko kontzeptu eta gaitasunak hasten dira lantzen. Orientazioarekiko kontzeptu batzuk, adibidez, Haur Hezkuntzan landu behar dira. Modu natural batean ikusi behar dute haurrek ze kontzeptu matematiko dauden lotuta orientazioarekin. Gaitasun matematikoak lantzen hasi behar da Haur Hezkuntzatik, ez zenbakiak ikasten bakarrik. Pentsamentu matematikoa zenbakiak baino askoz zabalagoa delako. Zenbakien esanahia eta pentsamendu numerikoa ikasi behar dira, baina baita geometriarekin loturiko kontzeptuak ere. Haur Hezkun-

tzako umeekin modu erraz eta ludikoan jolastu behar dugu, eurentzat matematika hurbilekoa izan dadin.

## **Adin nagusiagoetan matematika klase magistralekin jarraitu beharko litzateke ala ikasleei protagonismoa eman?**

Ez litzateke metodo bakarra modu unibertsalean tratatu behar. Matematika irakasteko eta ikasteko klase magistralak erabil daitezke, baina ikasleek haien ezagutzaren protagonista ere izan behar dute. Ikasleek eurek protagonista izateko aukera izan behar dute klasean ideiak azaltzeko edo argudio matematikoak justifikatzeko. Guztia ez da ikaslearen gain geratu behar, bestela matematikaren didaktika ikertzeak ez

luke zentzurik izango. Momentu batzuetan klase magistralak eman behar dira, eta beste batzuetan ikasleen autonomia bultzatzeko problema matematikoak planteatu behar zaizkie, eurek topa dezaten erantzuna. Irakasleok jakin behar dugu nolako ikasleak ditugun estrategia desberdinak erabili eta egokitzeko.

## **Irakaskuntzan hasi zinenetik aldatu da matematikak irakasteko modua?**

Eskolak asko aldatu dira eta espero dut irakasteko modua ere aldatuko zela. Mailaren eta eskolaren arabera, irakasle batzuek agian gehiago erabiltzen dute klase magistrala; beste batzuek, ez hainbeste. Geroz eta aniztasun handiagoa dugu ikasleen artean, eta aniztasun hori kontuan hartzen dugu irakasleok. Beti izango dugun kezketako bat izango da ikasleei nola eman behar dutena, eta erantzun horiek emateko gauza berriak martxan jarri eta ikerterea. Eskolaren estruktura oso desberdina da, gelak ere oso desberdinak dira, baina egia da, hezkuntzari begira, kasu batzuetan metodologiak berdinak izaten jarraitzen dutela. Oreka bilatzea da gakoa.

## **“Pentsamendu matematikoa zenbakiak baino askoz zabalagoa da”**

## **Matematika irakasle izango direnei ze aholku emango zenieke?**

Ez naiz aholkuak eman oso zaila, baina bi gomendio emango nituzke. Batetik, oso garrantzitsua dela matematikaren didaktikan formakuntza egitea. Metodologia berri bat martxan jarri nahi badute, dituen alderdi onak eta txarrak aztertu behar dira. Zerbait berritzailea egin nahi baduzu klasean, ikertu egin behar da, ikusteko ea zure esperientziak dioena egiazkoa den ala ez. Irakasle bezala, ikasi behar dugu gure lanari buruzko ikerketa egiten eta, horretarako, formakuntza falta zaigu. Modan dagoen metodologia bat, zergatik dago modan? Atzean ikerketa bat du edo publizitate ona? Hori ere aztertu beharko litzateke.

Bigarren aholkua, berriz, genero ikuspegiarekin dago lotuta. 12 urtetik aurrerako neskek zientziarekiko eta matematikarekiko afektibitate negatiboa erakusten dute, edo ez dute euren burua STEM (ingelesezko akronimoa, zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika jasotzen dituen) diziplinetan ikusten, eta hori bultzatu behar dugu. Neskak oso onak dira arlo hauetan ere, baino helden doazen neurrian ez dute euren burua STEM gaitetan ikusten eta ahalduz hori bultzatzea irakasle onak da. STEM arloek ezin dute gizartearen erdia galdu, emakumeok ere badugu zeresana. Neskengan foku berezia jarri behar dugu, beraien autestima hobetu, gai direla erakutsi eta bidea egin dezaten.



<<< HARRITOKIETA BEOBIDE / MAITE GOMEZ • IkasElkarreko kideak >>>

# “Ezin dugu ezagutzak ebaluatzen bakarrik jarraitu”

“Euskal Curriculumaren garapen integrala: EKI proiektua” ikastaroa hartu du Eibarko Markeskuak, eta Harritokieta Beobide Egaña eta Maite Gomez Lete dira ikastaroaren gidari. Biak dira IkasElkarreko kide, Beobide EHIn Bigarren Hezkuntzako gizarte zientzietako koordinatzailea da eta Gomez matematikakoa. Ederki ezagutzen dituzte EKI Proiektuaren xehetasunak eta eskolak emateko modu berri honek dituen onurak azaldu dizkigute.

**“Euskal Curriculumaren garapen integrala” izeneko ikastaroarekin ari zarete. Zer izan da biok prestatu duzuen?**

MAITE GOMEZ: Euskal Curriculumetik abiatutako lau saio antolatu ditugu. Euskal Curriculumak konpromiso batzuk hartu zituen bere garaian hezkuntzarekin eta kulturarekin, eta EKI proiektua hor kokatzen den ikasmateriala da. Lehenengoan ezaugarri eta bereizgarriak kokatu ditugu. Bigarren saioan, Euskal Curriculum finkatzen duen horretara hurbiltzea eta dakarren ikuskera aldatzea martxan jarzteak zer eskatzen duen aztertuko dugu. Ikaslea erdigunean badago, irakasleak ze esku hartze hartu behar duen aztertuko dugu. Ebaluazioan zentratuko gara azken bi saioetan. Batetik, nola uztartu ebaluazioa eredu pedagogikoarekin; eta, bestetik, saioan ebaluazio hezigarriari emango diogu indarra.

**Zein dira orain arte atera dituzuen ondorioak edo emaitzak?**

HARRITOKIETA BEOBIDE: 2013an atera ziren lehenengo materialak, baina bost urte lehenago hasi ginen lanean. Proiektu bezala DBH osorako materialarekin hasi ginen, eta gaur egun Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera hasten dira EKI proiektuarekin. Konpetentzietan oinarritutako ikasketa bat eta irakaskuntza bat posibleak eta egingarriak direla konturatu gara. Horrek berak inplikatzeko duen metodologia eta irakaslearen rol alda-



keta handi bat. Egingarria da, baina ez da aski ikasmateriala aldatzearekin. Eskolaren inguruko hainbat ezaugarri aldatu eta egokitu behar dira ikaslearen konpetentziaren garapena lortu nahi badugu.

**Zertan laguntzen du proiektuak lan egiteak?**

M.G.: EKI proiektuaren ezaugarri nagusienetakoa da konpetentzien garapenean oinarritzen dela. Ikasleari gutxienez bi arazo egoera jartzen zaizkio. Arazo egoera horiek familia berekoak izaten dira. Helburua egoera berriei aurre egiteko tresnak garatzea izango litzateke.

H.B.: Azkenean egoerak direlako konpetentzien garapena lortzeko tresna bakarra. Ezagutzaren eskuratzearekin ez da aski. Ikasleak ezagutza horiek aplikatu eta erabili egin beharko ditu arazo egoerei au-

re eginez, eta horrela bermatuko dugu ikaslearen konpetentzia garatzen dela.

**Beste ezaugarrietako bat integrazioaren pedagogia da. Zer da hori?**

M.G.: Ikasleekin aurrera eramateko eredu pedagogikoa aukeratu behar zen, eta integrazioarena aukeratu genuen. Lovainako talde batekin arituginen lanean, nahi genuen horretara gehien hurbiltzen zelako. Integrazioaren pedagogiak, konpetentziak eta egoerak binomio bat sortzen du eta ikasleak ekintzaren aurrean jartzen ditu.

**Ikas-irakas prozesuak ebaluazioan ere badu bere pisua. Zergatik da garrantzitsua koherentzia horri eustea?**

H.B.: Ikaslearen konpetentziaren garapena bermatu nahi

badugu, ezin dugu ezagutzak ebaluatzen bakarrik jarraitu. Bestela ezagutzak irakasten bakarrik amaituko genuke. Ebaluazioak hori egiten duelako: Zer ebaluatuko dut? Hori bakarrik prestatuko dut. Eta ikaslearen kasuan ere, gauza bera: irakasleak zer ebaluatuko duen jakinda, hori bakarrik ikasiko luke. Ezagutza ebaluatu behar dela ez dago zalantzarik, baina ikaslearen konpetentziaren garapena ere ebaluatu behar da. Ikasleak hori ere jakin behar du, arazoei nola aurre egiten dien ebaluatuko dela.

**Nola joango dira garatzen Euskal Curriculum eta EKI?**

M.G.: Gauza asko ditugu hobetzeko eta etengabe ari gara ikasten. Burubelarri gabilta ikas-irakas ebaluazioarekin lanean, koherentzia uztartzeko. Proiektu eta egoera interdisziplinarrak pentsatzen ari gara baita ere, arloen arteko zubiak eraikitzeko. Erronka asko ditugu; aniztasunaren ikuspegia nola tratatu, adibidez. Sortu genuen EKI proiektuak ertz asko dituela konturatu garelako. Beti ikaslearen arrakasta zihurtatzeko eta material hobekien erabilera. H.B.: Proiektua sortu genuenean arlo klasikoagoekin hasi ginen: matematika, hizkuntzak, natura... Momentu honetan EKI Berriak deitzen diogu, beste arloetara ere zabaldu dugulako, teknologiarako edo musikarako adibidez. Ikasleak ikutzen dituen arlo guztietara zabaldu dugu, eredu berdinetik eta koherentziaz joan daitezkeen.



## Sarrereren dirua itzultzeko eskaerak aurkeztu daitezke

COVID-19ak eragindako alarma egoeran zehar Coliseo antzokian egin beharreko emanaldiak eta ikuskizunak bertan behera geratu ziren eta, online erositako sarrereren dirua itzuli egin bazuten ere, ez zen hala gertatu leihatilan erositako sarrereren kasuan. Udaleko Kultura sailak jakinarazi duenez, leihatilan sarrerak erosi zituztenek irailaren 30era arteko epea izango dute dirua itzultzea eskatzeko, horretarako inprimakia bete eta itzuli beharreko sarrereren irudiak erantsiz Eibarko Udalaren web orrian, [https://www.eibar.eus/coliseoa\\_covid19](https://www.eibar.eus/coliseoa_covid19) estekan.

Norbaitek formularioa elektronikoki betetzeko baliabiderik ez badu, Kultura Sailarekin jarri beharko da harremanetan, 943 708435 telefono zenbakira deituta, tramitea aurrez-aurre egin ahal izateko eguna eta ordua zehazte aldera.

Bestalde, ordainketak egiteko epeak honako hauek dira: uztailaren 16tik 26ra bitartean egindako itzulketak-eskaerak uztailaren 30ean ordainduko dira; uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean egindako itzulketak-eskaerak, berri, irailaren 11n; eta irailaren 1etik 30era bitartean egindako itzulketak-eskaerak, urriaren 9an.

## XXXIII. Indalecio Ojanguren argazki lehiaketarako deia egin dute Udalak eta Deportiboak

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, XXXIII. Indalecio Ojanguren lehiaketarako deia egin du. Lehiaketa 011/2020 Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria da eta lanak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era bitartean egongo da zabalik. Egile bakoitzak gehienez ere hiru argazki aurkez ditzake zuri-beltzean, eta beste horrenbeste koloretan. Inoiz saritu gabeko argazkiak izan beharko dira. Informazio gehiagorako Udalaren web orrian begiratu daiteke, lehiaketen atalean.



## Udako zinema emanaldiak itzuli dira, “Zinema kalean” egitasmoaren eskutik

Aste honetan itzuli dira udako zinema emanaldiak Untzagara, Eibarko Kulturak antolatu duen “Zinema kalean” egitasmoaren eskutik. Eguaztenean “Lo deo cuando quiera” komediarekin hasi ziren proiektzioak eta eskeiniko duten hurrengo filma “Agur Etxebeste!” Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako euskerazko komedia izango da, datorren eguaztenean, 22:00etan hasita.

Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate eta Paco Sagarzazu protagonista dituen pelikulan Etxebestetarren gorabehera

berriak kontatuko dizkigute: Patrizio Etxebeste behartuta dago “osasun arazoengatik” alkatetza uztera. Udaleko agintea ez galtzeko, Maria Luisa emaztea izendatzen du herriko lehen alkate. Maria Luisak oso serio hartuko du bere lan berria, eta goitik behera aldatuko du Udalaren funtzionamendua, hantaz gora jarrita bikote-harremana eta etxeko giroa.

Proiektzioak uztaileko eguaztenean eta abuztuko eguaztenean izango dira eta, Untzagan ez ezik, Legarreko frontoian eta Karmengo parkean izango dira.



## Zuzendaritza-transbertsalitatea azalduko du bihar Laskurainek

Mexikoko Beth Aguirre irakaslearen “Directores unidos” programaren barruan hitzaldia emango du bihar Jose Miguel Laskurain Caño musikari eibartarrak. Nahi duenak Zoom plataformaren bitartez online jarraitu ahal izango du saioa, 20:00etatik aurrera. Aulos Orkestra eta Banda zuzenda-

ritzarako eskolan Laskurainek darabilen zuzendaritza-transbertsalitatea izeneko teknikari buruz arituko da berbetan eibartarra. Irakasleak dioenez, taldearen zein soinuaren kalitatea hobetzeko baliagarriak diren baliabideak edozein zuzendariaren esku ipintzen ditu berak azalduko duen teknika horrek.





## Gure herria hobeto ezagutzeko ekimenak sustatu dituzte Euskarazko Wikipedian

Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak gure herria hobeto ezagutzeko hainbat ekimen sustatu ditu Euskarazko Wikipedian. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin duen hitzarmena baliatuta, hiru ardatz dituen WikiBizi ekimena garatu du: 'Euskal Herriko Bidaia Gida' irekia, martxan dagoen argazki

lehiaketa bat eta, hirugarrenik, udan zehar egingo diren zuzeneko ekimenak (argazki ibilbideak, dokumentazio txangoak, bisitak museoetara...). "Uda hau berezia izango da eta askok bere ingurua hobeto ezagutzeko baliatuko dute. Euskarazko Wikipediak horretan ere lagundu dezakeela uste dugu", azaldu dute.



## Zuzeneko musikarekin gozatu ahal izateko agertoki bilakatu dute Untzaga plaza

Untzagan zuzeneko musika-rekin berriz gozatzeko aukera egon da, Harira taldeak eta Julen Leturiondok eman dituzten kontzertuetan. Kultura sailak uztaileko hiru kontzertu antolatu ditu, hirurak Untzagan, eta osasun eta segurtasun neurri guztiak zainduta. Besteak beste, harmai-

letan jartzeko tokiak markatu dituzte eta, gehienez, 300 lagun bildu daitezke (gonbidapenak astelehen eta barixakuetan jaso daitezke Coliseoko leihatilan doan, 17:30etik 19:30era edo Kutxabanken bidez, kudeaketa-gastuak ordainduta). Martitzenean "Debajo del paraguas" taldearen txanda izango da.



## Amak, Soraluzen kontzertuan

Soraluzeko Kulturaldiaren barruan, biharko "Amak" taldearen kontzertua antolatu dute, 19:30ean Frontoi Zaharrean (euria egingo balu, antzokian). Emanaldia Soraluze-ko Udaleko Parekidetasun Batzordearen eta Gaztelupeko Hotsak-en eskutik egingo da eta, antolatzaileek azaldu dutenez, "Amak amak dira eta lau. Lau trikiti edo lau pandero eta lau ahots. Lau izenen lehen letrarekin osatutako taldea eta, gainera, lauak amak dira. Amak ikuskizun biribila eskainiko duen taldea da: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten). Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta proposamena gorpuztu nahi dute plaza arruntetatik kanpo. Ikuskizun bitxia eskainiko digute trikiti, pandero eta ahotsen hamaika bariazio edo konbinazioekin, eta horrela lortuko dute kantuei formula berriak lantzea. Euskal Herria irudikatze-ko aukerak eskainiko dituzte 50 minutuko errepertorioarekin". Sarrerak 5 euro balio du eta aurretik eros daiteke Ira-txo dendan edo udaletxean.



## KZguneetako atek zabaldu dituzte

Neurri bereziekin bada ere, KZguneek atek zabaldu dituzte eta hainbat zerbitzu erabilgarri daudela gogoratu nahi diote jendeari: informazio orokorra (IT Txartela, Lanbide, Alokabide...), izapideak (BakQ, Metaposta), aurrez aurreko tutoretzak eta baita nabigazioa ere (20 minutu gehienez). KZgunera sartzeko maskara derrigorrezkoa da eta, horrez gain, bertan izapideren bat sinatu ahal izateko, norberak bere boligrafoa etxetik eraman beharko du nahitaez. Zerbitzuren bat erabili nahi izanez gero, aurretik hitzordua eskatu beharra dago eta Gipuzkoako KZguneetan txanda hartzeko telefonoak 944 033 377 eta 945 062 555 dira. Hitzordua eskatzeko ordutegia, berriz, astelehenetik barixakura, 08:00etatik 20:00etara bitartekoa da. Hala ere, gogoratu Eibarko zentrua bakarrik goizez zabal-tzen dutela, 09:00etatik 13:00era. Zerbitzu zein ikastaro eskaintzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) helbidera jo dezakezue.



Pottokak Akondian. JORGE RODRIGUEZ



8			5			4		
5		3		8		1		
		7	6			5		
			2		5	3		
7								6
		5	4		6			
		1			2	8		
		2		5		6		9
		6			1			5

6	7			1			2	
		3			9	6		
	9	8		7	6			
				3	2			
	2	7					1	5
				7	5			
				4	6		5	9
		1	8				2	
5				2			8	3

soluzioa

5	6	2	1	7	8	9	4	6
6	1	7	2	8	3	7	9	5
7	1	7	2	8	1	6	5	6
8	2	2	9	8	7	3	6	1
9	5	8	9	6	1	7	2	7
1	7	2	8	1	6	5	6	1
2	2	9	8	7	3	7	9	5
3	6	1	7	2	8	3	7	9
4	6	1	7	2	8	3	7	9
5	6	2	1	7	8	9	4	6

## SUDOKUAK

soluzioa

6	7			1			2	
		3			9	6		
	9	8		7	6			
				3	2			
	2	7					1	5
				7	5			
				4	6		5	9
		1	8				2	
5				2			8	3

## HIZKIZOPA

G	A	Z	L	D	A	N	T	Z	A	R	I	A	S	D	Q	A	B	E	A
I	A	S	T	R	O	N	A	U	T	A	J	L	G	K	P	H	O	B	Z
H	W	C	A	J	R	V	Y	E	R	I	Z	A	I	N	A	K	Z	U	D
M	D	A	U	K	I	D	E	M	A	N	P	Q	N	Z	K	S	B	H	O
K	U	A	E	G	B	I	I	V	I	Z	D	D	K	Q	Q	O	A	X	O
F	J	B	J	L	F	L	V	G	S	S	M	W	F	B	Y	F	M	D	X
A	Y	J	E	A	I	Z	I	L	O	P	O	R	O	B	M	P	C	D	B
I	C	A	E	L	I	A	Z	T	N	I	A	P	A	E	L	I	X	F	I
R	Q	O	U	F	X	D	Z	E	D	A	I	R	A	L	O	R	I	K	A
A	D	Q	W	Z	E	B	T	T	D	E	K	D	P	N	F	A	O	D	I
D	I	A	L	Y	I	T	N	W	L	A	N	U	W	C	H	K	F	H	R
L	M	R	J	X	U	W	G	A	W	I	Y	D	W	M	A	A	T	Y	A
A	E	X	A	R	Z	T	N	W	O	R	H	R	A	L	Z	S	Z	L	L
K	F	F	R	T	E	I	U	D	V	A	A	U	E	R	I	L	C	Q	S
U	A	T	U	A	A	T	C	T	X	T	B	V	S	E	I	E	R	W	E
S	Y	L	D	Z	O	P	I	E	P	I	Q	N	M	T	V	A	M	F	B
G	J	S	E	G	A	L	A	E	T	A	G	F	S	M	J	J	D	S	A
O	C	R	C	U	V	Z	W	Z	I	B	A	K	Y	D	D	Q	U	E	T
H	O	J	N	K	U	F	T	Z	Q	L	L	X	B	O	V	N	S	C	C
L	K	Z	D	R	R	I	K	T	C	A	V	N	L	O	L	M	H	V	D

- AURKITU  
15 LANBIDE  
HAUEK:**
- ILEAPINTZAILEA
  - DANTZARIA
  - ALBAITARIA
  - LOREZAINA
  - SUKALDARIA
  - ASTRONAUTA
  - ZAPATARIA
  - ERIZAINA
  - SUHILTZAILEA
  - IRAKASLEA
  - ABESLARIA
  - DENDARIA
  - POLIZIA
  - KIROLARIA
  - MEDIKUA

## Telefono jakingarriak


SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 17</b>
EGUNEZ   Barandela (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 18</b>
EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)
<b>DOMEKA 19</b>
EGUNEZ   Lafuente (Sostoatarren, 10)
<b>ASTELEHENA 20</b>
EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 21</b>
EGUNEZ   Iraundegi (Calbeton, 19)
<b>EGUAZTENA 22</b>
EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)
<b>EGUENA 23</b>
EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>BARIXAKUA 24</b>
EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Aurori Perez Etxabe.** 89 urte. 2020-7-11.
- **Florencio Abascal Garcia.** 80 urte. 2020-7-11.
- **Fco. Javier Dobarganes Odriozola.** 73 urte. 2020-7-11.
- **Isabel Alonso Arnaiz.** 89 urte. 2020-7-11.
- **Cipriano Sanchez Sanchez.** 85 urte. 2020-7-13.
- **Blanca Mendikute Aranzabal.** 93 urte. 2020-7-13.
- **Jesus Aperribai Lotina.** 90 urte. 2020-7-14.
- **Juliana Davila Davila.** 86 urte. 2020-7-14.
- **Manolo Ferrero Soto.** 87 urte. 2020-7-14.
- **Adoracion Gonzalez Chacon.** 92 urte. 2020-7-15.
- **M<sup>a</sup> Luisa Maitre-Jean Gorosabel.** 99 urte. 2020-7-16.

## Jaiotakoak

- **Carlita Dallana Meza Amanzor.** 2020-7-3.
- **Markel Vallido Martin.** 2020-7-7.
- **Oliver Isasmendi Mateos.** 2020-7-9.
- **Aitana Iglesias ProL.** 2020-7-12.
- **Kepa Unamuno Landaburu.** 2020-7-12.
- **Sara Akarouch Lahri.** 2020-7-13.
- **Ismael El Batioui.** 2020-7-13.

ek!

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN  
ZORION-  
AGURRAK  
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus



# Eibarren  
badakagu

**Denok  
irabazten  
dugulako**





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



### Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **ZOIARTZE**, hillaen 15ian 12 urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JARE**, gure sorgintxuari!! Hillaen 15ian 5 urte egin dozuz-eta!! Musu erraldoi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ARIANE**, maitxia. domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, **JULEN!!!** Atzo urtetxua bete zenduan!!! Primeran pasatu genduan!!! Jarraitu holan, alai eta zoriontsu. Patxo haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak, **ENEKO**, eguaztenian 5 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, **KOLDO** Sendino Suarez, hillaen 15ian 11 urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, **NORA**, atzo 3 urte bete zenduaz-en-eta! Besarkada haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, **JARE**, hillaen 15ian 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Uztaillaren 12xan hazi da Eibar-Elorriko famelixa. Ongi etorri, **KEPA**, etxeko poz barrixa!



Zorionak, **AMETS!!!** Astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, **IBAI**, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Jarraitu horren alai eta jatorra izaten. Laztan haundixak famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MAIALEN** Barrutia, domekan 14 urte beteko dozuz-eta! Guztioren eta, batez be, Aizea eta Aneren partez.



Zorionak, **EKHI** (ekaiñaren 24an) eta **PAULE** (uztaillaren 13an)!!! Segi bazterrak alaitzen!!! Musuak famelixaren eta, batez be, Jakes eta Haizearen partez!!!



Zorionak, **IZAR** eta **MAITE**, hillaen 20xan 2 urtetxo egingo dozuz-eta! Musu mordua etxekuen partez.



Zorionak, **HARITZ**, domekan 10 urte!!! Musu haundi bat danon partez.

## zarelakogara

Izen-abizenak..... Helbidea.....  
Tfnoa / emaila..... NAN.....  
Jaiotze data..... K/K zenbakia.....

### Bazkietza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

\* Urteko kopuruak dira

...eta kitto!  
Euskara Elkarte

### Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

# Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

## Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

### 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

### 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

### 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

### 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

### 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

### 1. ETXEBIZITZA

#### 1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.

### 3. LOKALAK

#### 3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke Urki-Txaltxazelai inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

### 4. LANA

#### 4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 604-149786.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 617-571210.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Mendekotasuna dutenekin lan egiteko titulazioa. Externa. Tel. 666-197831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. Tel. 632-576611.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 611-320827.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-170364.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluarekin. Tel. 667-376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tituluarekin. Tel. 637-966749.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, etabar. Tel. 632-729261.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-204057.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 12 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tituluarekin. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta. Tel. 610-067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 602-852095.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-259997.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 604-149786.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldeko lanak egiteko. Tel. 654-247655.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Haur Hezkuntzako formakuntzarekin. Tel. 689-618820.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean arratsaldean umeak zaintzeko. Tel. 688-628235.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 643-115699.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 632-820091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-474612.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 631-121148.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770.

#### 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Tiro Pitxoi jate-txerako. Autoa izatea ezinbestekoa. Bidali curriculum Eibarko 46 postakutxatilara.
- Astebururako zerbitzaria behar da mahaiak zerbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.

### 5. IRAKASKUNTZA

#### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 lagunek taldeak gehienez. Gaintu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.


#### 5.2. Eskerak

- Irakaslea behar da gaztelerazko klase trinkoak emateko. Tel. 661-874548.

### 6. DENETARIK

#### 6.1. Salgai

- Ohea salgai. "Tren-motako" bi ohe-litera, konposizio politean, lau kaxoi eta armairuarekin. Egoera onean eta merke. Tel. 670-497038. Esther.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus





# osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**



838200124  
kolegiatu zentratia

**T. Etxebarria, 5 - 1. A**  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

## Psikologoak

 **AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGICA 10/201987 kolegiatu - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

## Okulistak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

 BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. ....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika


• **Katarata ebakuntzak**  
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 204/13 

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

**PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**



Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**  
GOZIEZ ETA ARRATZALDEZ  
Urkizu, 13 - beheha  
Tel. 943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

 **FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. esk. (Bilbo)  
94 416 49 06  
[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Residencial

# IPURUAALDEA

SOSTOA TARREN 14, EIBAR

# Bagoaz aurrera!!!

## 3 LOGELAKO 16 ETXEBIZITZA



 **Larragest** 

INMOBILIARIA AGENTZIA

F. Calbetón, 22 660 976 156 / 690 610 715